goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-07-17
EGUBAKOITZA
648. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

# Eibarrekin mailaz igo diren Debagoieneko futbolariekin

Oihana Alonso, Irati Lazkano eta Melani Concepcion | Eibar futbol taldeko jokalariak


Hiru futbolariak. | XABIER URZELAI


Umeendako tailerrak egingo dituzte Jardunaldi Gastronomikoetan | 2

EAJ eta PSE-EE, Arrasateko eta Bergarako gobernuetan | 8 eta 12


Kantoikrit lasterketa Oñatin, inoizko parte-hartzerik handienarekin | 23

# Mondragoneko kooperatibek ia 1.000 lanpostu sortu dituzte

2014a inflexio puntua izatea espero du Sotilek | 5


Javier Sotil. | XABIER URTZELAI

## Gazte lokalen erabilera arautegia egin dute Oñatin | 17

## Emakumeen Mundu Martxa Bergaratik pasatuko da | 2


ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:
- Udan freskatzeko, bizikletarekin uretara salto
- Jon Markaide astrofisiko arrasatearrari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05



# Udan kultura kalean

Uztailean eskualdeko herrietako kaleak kulturgune bihurtzen dira eta aurten ere askotariko eskaintza dugu plaza, parke eta kaleetan; aste barruan zein asteburuan. | 24 eta 30-31

Maite Arresek Oñatiko Lazarraga parkean eguaztenean eskainitako emanaldia. Beheko argazkietan, asteburuko eskaintza batzuk. | JAGOBA DOMINGO


Gabacho Maroconnection, Bergaran. | ANA SOLINIS


*Rico, rico, rico* antzezlana Arrasaten. | DAVID HERRANZ


Glaukoma taldea Eskoriatzan. | BONBERENEA EKINTZAK







SINADURAK
'Mugakoak' | 6 IRAITZ AGIRRE
Adora dezagun Jimenez! | 6 JULEN IRIONDO
Puntu eta aparteak | 9 OIHAN ZUBIZARRETA
Saltsa guztietako perrexila | 14 JOSU ELORTZA
Bost kaña eta 'El taxi' | 17 JOSU ZUBIA
Buruaren tranpak | 18 OLATZ PAGALDAI
Ikurrina | 32 ANDER ETXEBERRIA

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 7 | KIROLA 22 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27 | IRRATI-TELEBISTA 28 | EZKONTZAK 28 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

# Urriaren 2an Bergaratik pasatuko da Emakumeen Mundu Martxa

## Ordurako ekitaldiak antolatzen dabiltza Debagoieneko feministak

**MIRARI ALTUBE** | ARRASATE

Martxoan Kurdistanen hasi zuten IV. Emakumeen Mundu Martxa, eta urriaren 2an Debagoienera iritsiko da; Bergarara, hain zuzen. 12:00ak eta 14:00ak aldera pasatuko da eta ordurako ekitaldiak antolatzen dabiltza azken asteotan eskualdeko feministak.



Eguaztenean Arrasateko Kulturaten elkartutako emakumeak. | MIRARI ALTUBE

**Ekintzak zehazten**

Eguaztenean Debagoieneko bilera izan zuten Arrasaten, eta elkartu ziren Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko hogei bat emakume; Elgetakoek ezin etorria azaldu zuten, eta, bide batez, jakinarazi taldetxoa sortu dutela herrian eta lanerako gertu daudela. "Bilera hauek dira herri ezberdinetako eragileak eta norbanakoak elkartu eta Mundu Martxaren bueltan zer antolatu gura dugun erabakitzeko", jakinarazi du Leire Estevezek, antolakuntzako kideak, eta gaineratu du: "Talde polita elkartu gara, eta egitasmoa zehaztu guran gabiltza orain lanean".

Guztiek dakite urriaren 2a, egubakoitza, ez dela data ona; batetik, laneguna delako, eta bestetik, Arrasaten Maritxu Kajoi ospatzen dutelako. Hala ere, ekitaldi mordoa egiteko asmoa agertu dute. Horrez gain, eskualdeko gainerako herrietan ere landu gura dituzte hainbat gai, eta ekintzak antolatu ere bai, urriaren 2ko dataren bueltan. Hori guztia lotzen joateko hurrengo batzarra uztailaren 29an egingo dute Oñatiko gaztetxean, 18:30ean.

**Feminismoa "landatzea"**

Aurtengo Mundu Martxaren leloa honako hau da: *Gure gorputzak, gure lurraldeak, martxarekin jarraituko dugu libre izan arte*. "Lelo horri jarraituta proposatzen den ekimena da landatzea. Hala, landaketa sinbolikoen bitartez gura da feminismoaren izaera eta aldarriak ereitea; azken batean, Euskal Herrian ere feminismoa toki guztietara zabaltzea", dio Estevezek, eta gaineratu du: "Era berean, animatu gura dut jendea martxari atxikimendua ematera *emakumeenmundumartxa.eus*. helbidean; hala, han dagoen Euskal Herriko mapa osatzen joateko".

# 459 milioi euro Europatik 'Euskal Y'-arendako

## Bergara eta Baiona lotuko dituen zatiarendako da dirua eta kostuen %40 hartuko du bere gain

**GOIATZ ARANA** | BERGARA

Bruselak 523 milioi euro emango ditu *Euskal Y*-aren lau proiektu bultzatzeko, eta zati nagusia izango da Bergara, Donostia eta Baiona lotuko dituen tartearentzat: 459 milioi. Tarte horren kostua 1.147 milioi euro da, guztira; beraz, Europak emandako laguntzak kostuen %40 hartuko luke bere gain.

Europaren ebazpenean Baionarainoko bidea ageri bada ere, Frantziak oraindik ez du baieztatu AHTa egingo duenik, ezta zein epe duen horretarako ere.

**Inoizko kopuru handiena**

Europako Batzordeak, guztira, 13.100 milioi euro banatu ditu Europako 276 proiekturen artean, 2014-2020ko epealdiko *Europa konektatzen* programaren barruan; Europak inoiz azpiegituretara bideratu duen diru kopururik handiena da.

Hiru irizpide betez hautatu ditu Europak proiektu horiek: prozesu orokorra ez geldotzea; mugaz gaindiko dimentsioa edukitzea; eta multimodalitatea sustatzea.

Guztira, 700 proiektu baino gehiago aurkeztu zituzten programara, eta trenbideak eta portuak lehenetsi dituzte. Orain onartu dituzten diru laguntzak aurreko urteko irailean aurkeztu ziren proiektuei dagozkie. Urrian antzeko programa bat jarriko du martxan Europako Batasunak, eta estatuek proiektu gehiago aurkeztu ahal izango dituzte laguntzak jasotzeko gero.

**"Ekarpen handia"**

Europako Batasuneko Garraio komisario Violeta Bulc-en ustez, laguntza jasoko duten proiektuak "mugikortasun programa iraunkorrentzat onuragarriak" izango dira, inbertsioek Europako Batzordearen hazkundea eta enplegua sortzeko programan "ekarpen handia" egingo dutelako, haren iritziz: Europako garraio sareak hamar milioi lanpostu sortuko dituela eta 2030. urterako Europako barne produktu gordina %1,8 haziko dela uste du.




Ix35 KOSMO edizio berezia

**Beste galaxia bateko ekipamendua 17.990 eurogatik.**

- Bizona aire-girogailu automatikoa.
- Bluetootha eta abiadura-kontrola mandoak bolanteak dituela
- 16"-ko aleaziozko hagunak.
- Argi eta aparkamendu sentsoreak.
- Aurreko eta atzeko eserleku berogarriak.
- Motorraren gelditze eta abiatze sistema automatikoa: Stop & Go.

Eta gehiago nahi baduzu, ikus itzazu KOSMO Tecno eta KOSMO Style modeloak.

OARSO CAR
GIPUZKOAN DEALER BAKARRA
www.oarsocar.com
cinking
HYUNDAI NEW THINKING. NEW POSSIBILITIES.

| OIARTZUN | BEASAIN | ELGOIBAR | IRUN |
|---|---|---|---|
| 943 49 48 30 | 943 80 40 54 | 943 74 14 80 | 943 63 97 69 |
| Lintzirin poligonoa, 1 | Errepide nagusia | Olaso poligonoa, 17 | Behobia zubia |
| (Leroy Merlin ondoan) | (Hotel Castillo ondoan) | | |

# Arantzazutik pasatuko den Inaziotar Bidea aurkeztu dute

**M.A.** | OÑATI

Eguaztenean Loiolan aurkeztu zuten Euskadiko eta Kataluniako ordezkariek Inaziotar Bidea, eta ibilbide horren zati bat oinez egin zuten, besteak beste, Arantxa Tapia sailburuak eta Jesusen Konpainiako eta Arantzazuko santutegiko hainbat ordezkarik.

"Kultura eta natura turismo produktu baten aldeko apustua" egin du Basquetour-ek, Donejakue bidearen antzera, "erromesaldi-esperientzia" baterako aukera emango duelako. Hala, hainbat eskualdetako eta herritako "ekonomia suspertzen" lagunduko duelakoan daude.

Azpeitian hasi eta Manresaraino (Bartzelona) doa Inaziotar Bidea, sasoi baten Ignazio Loiolakoak Erromara egindako ibilbidea oinarri hartuta. Euskal Autonomia Erkidegoan zazpi etapa ditu, eta hauek dira: Loiola, Arantzazu, Zumarragako Antiguako ermita, Aizkorri parke naturala, Arabako lautada, Arabako mendialdea eta Guardia, hain zuzen ere.

# 20. Jardunaldi Gastronomikoak abian dira hilaren 26ra bitartean

**M.A.** | ARRASATE

Astelehenaz geroztik 20. Jardunaldi Gastronomikoak egiten dabiltza Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik eskualdeko sei jatetxe: Bergarako Lasa, Elgetako Maialde hotela, Oñatiko Etxe-Aundi eta Goiko Benta eta Arrasateko Hilarion eta Santa Ana hotela.

Sasoiko eta bertako produktuak bultzatzea du egitasmoak helburuen artean, eta, oraingoan, honako hauek dira: hegaluzea, txakolina eta fruitu txikiak. Aipatutako sei jatetxeek produktuokin egindako menuak eskainiko dituzte uztailaren 26ra bitartean.

Jardunaldion bueltan, gainera, hainbat jarduera egingo dituzte. Bihar, zapatua, umeendako tailerra izango da Arrasateko Seber Altube plazan (11:00-13:00), eta produktuak ezagutzeko eta dastatzeko gunea ere bai. Martitzenean, hilaren 21ean, ostera, sukaldaritza tailerra dago Aretxabaletako Otalora jauregian (18:00). Udako entsaladak eta musak egiten irakatsiko dute Ausolaneko kideek. Horretarako, aurrez eman behar da izena: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*.



Aurtengo Kooperatibagintza Topaketaren une bat. | A.L.

# Aldaketei erantzuteko tresna gisa ipini dute autoeraketa

## Horixe izan da Huheziko III. Kooperatibagintza Topaketaren gaia; eguaztenean egin zuten

**ANDER LARRAÑAGA** | ARETXABALETA

Autoeraketaren inguruko jardunaldiak egin dituzte MUk eta Donostia 2016k egunotan, Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultateak antolatutako Kooperatibagintza Topaketan. Eguaztenean, hilak 16, izan ziren topaketak Huheziren Aretxabaletako eraikinean. Mondragon Unibertsitateak eta Donostia 2016k elkarlanean antolatutako jardunaldiak izan dira eta autoeraketan eta herrigintzan inplikatuta hainbat eragilek parte hartu dute. Helburua garbia da: aldaketa asko gertatzen ari den garai honetan, autoeraketa soluzio posible bezala aurkeztea. Honako hau esan zuen Huheziko Lanki ikertegiko Eneritz Pagaldai antolatzaileak: "Azken hamarkadetan aldaketa batzuk bizi ditugu, hainbat planotan –politika, gizartea, kultura...–, eta aurrera begira erantzunak eta alternatibak emateko autoeraketa izan daiteke tresna bat".

UAB, Universitat Autonoma de Barcelonako katedradun Joan Subirats gonbidatu dute, kooperatibismoak, aldaketa asko izaten ari den gaurko aroan, zein eragin duen aztertzeko. Bere hitzaldian, "erosotasun zonaldetik kanpo" irteteko gonbidapena egin zuen; "mundua pentsatu genuenaz bestelakoa bilakatzen ari da, eta kooperatibismoak erantzun berriak pentsatu behar ditu".

Subirats-ez gain, parte hartu dute Fagor taldeko lehendakari Joxean Alustitzak, Reas Euskadiko koordinatzaile Carlos Askuntzek, *Argia*-ko zuzendari Estitxu Eizagirre eta Olatukoop-eko Beñat Irasuegik. Ekonomia sozial, solidario eta eraldatzailearen inguruan ekarpenak egin dituzte laurek, hausnarketarako bidea emanez.

**Irailean, zabalkunde proiektua**

Mondragon Unibertsitateak eta Donostia 2016k kooperatibagintzaren baloreak zeintzuk diren plazaratzeko proiektua martxan jarriko dute irailean. Honela azaltzen du Eneritz Pagaldaik: "Udazkenetik aurrera kooperatibismoaren inguruko balioak euskal gizartean zabaltzeko prozesua martxan jarriko dugu, eta Kooperatibagintza Topaketa hauek marko interesgarria izan dira horri erreferentzia egiteko eta kokatzeko".

# "Errendimendu osoan" dabil Fagor CNAren Garagartzako lantegia

**JULEN IRIONDO** | ARRASATE

Fagor CNA Groupeko arduradunek joan den egubakoitzean azaldu zuten Garagartzako lantegia "errendimendu osoan" lanean jartzea lortu dutela, eta horrek ekarriko duela urte amaierarako garbigailuen eta labeen ekoizpena handitzea urteko azken hiruhilekorako, Espainiako eta nazioarteko merkatuetako salmenta igoerari esker. Egosketa sailaren ekoizpen ahalmena %30 haziko da urrirako, epe berean garbigailuena bikoiztu eta eltzeena lehenago, irailerako.

Urte bukaerarako edo 2016 hasierarako Bergarako ekoizpena ere Arrasateko Garagartzara aldatuko dutela azaldu zuten, eta baita Basaurikoa ere.



MIREIA BIKUÑA

# Elkarretaratzea ArcelorMittalen

Azken hilabeteetan, azpikontratatutako bi langile hil dira Arcelorren Euskal Herriko lantegietan: bat ekainaren 25ean, Zumarragan, eta uztailaren 3an bestea, Sestaon. Hori salatzeko, lanuztea eta elkarretaratzea egin zituzten martitzenean ArcelorMittaleko beharginek, tartean Bergarakoek, ELAk eta LABek deituta.

<<Hasi nuenean espero nuen guztia bete da, eta nire ibilbide profesionalean oso lagungarria izango zait esperientzia honetatik pasatu izana>>



GURE IKASLEEN AHOTAN

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**Zergatik aukeratu zenuen Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?**

Aldez aurretik Mekatronika ikasketak egin nituen Eskolan, ikastetxea eta bere metodologia ezagunak eta gustukoak nituen. Elektronika arloan garapena izan nahi nuen, ikuspegi zabaleko teknikaria izateko.

**Nola baloratuko zenuke izan duzun esperientzia?**

Oso positiboki, klaseko dinamikagatik, ikasitakoagatik, eta lan esparruko ateak ireki zaizkidalako.

**Zer gustatu zaizu gehien?**

Puntako ekipamendu teknologikoa maneiatuz, klasean proiektuak garatu izana. Enpresa esparruarekin paralelotasun horrek, teknikoki zein autonomian, talde lanean, eta abarrean, asko aberastu nau.

**Zein da momentu honetan zure egoera?**

Praktikak Ulma Handling Systems-ek Otxandion duen lantegian egin ondoren, bertan lanean ari naiz; oso gustura, gainera.

**Gomendatuko zenuke ziklo hau egitea?**

Bai; hasi nuenean espero nuen guztia bete da, eta nire ibilbide profesionalean oso lagungarria izango zait esperientzia honetatik pasatu izana.



Gorka Gartzia Sistema Elektroteknikoko eta Automatizatuen ikasle ohia

http://www.mondragon.edu/eu/gep/ikasketak/goi-mailako-heziketa-zikloak
http://www.mondragon.edu/es/eps/estudios/ciclos-formativos-de-grado-superior

Jar ezazu zure autoa
puntu-puntuan
eta ondo
pasa oporrak

bateria
argiztapena
aire girotua
iragazkiak
balaztak
gurpilak
olio nibelak...



ALMACENES LASCAR
Pneumatikoak • Olio aldaketak • Garbiketak • Gasoil banaketa
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara

BERGARA PNEUMATIKOAK
• Pneumatikoak
• Olio aldaketak
• Mekanika azkarra
Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 763627
*bergarapneumatikoak@gmail.com*
*www.bergarapneumatikoak.com*



DESACRISTAL
AUTOAREN KRISTALDEGIA
•
INPAKTUEN KONPONKETA
•
LAMINA SOLAR
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA
Santalaitz, 6-5. Pab. / ITVaren kalean
Tel.: 943 76 36 09 - BERGARA
www.desacristal.com
CRISTALBOX

GARAJE BERRIA
MULTIMARKA
**Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak**
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara
*fordberria@telefonica.net*
*www.garajeberria.com*
**Eskaintza handiak!**

CITROËN
ION AUTOAK
Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua
Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

Murillo Garajea
EuroTaller
Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
*www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo*

ad TXOMIN GARAJEA
**Eskaintza bereziak pneumatikoetan!**
Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

# Kooperatiba industrialek ia 1.000 lanpostu sortu zituzten 2014an

## Enpleguari eutsita bukatu zuen Mondragon Korporazioak iazko ekitaldia

**LEIRE KORTABARRIA** | ARRASATE

Mondragon Korporazioak enpleguari eutsita bukatu zuen 2014. urtea, 74.117 langile zebiltzan-eta kooperatibetan, 2013an baino %0,1 gehiago. Industria kooperatibek, zehazki, aurreko ekitaldian baino 957 langile gehiagorekin bukatu zuten urtea, 657 barne merkatuan eta 300 atzerrian. Fagor Etxetresnetako 1.700 bazkideri eman zaie irtenbidea porrota gertatu zenetik. Hori da Mondragon Korporazioak 2014ko ekitaldiaren balorazioan jaso duena.

Korporazioa osatzen duten enpresa eta kooperatibek 10.985 milioiko salmentak egin zituzten, aurreko urtean baino %1,4 gutxiago. 345 milioi erabili zituzten inbertsioetarako. Ebitda bateratua 1.168 milioikoa izan zen; hau da, salmenten %10,6.

### 2013an baino hobeto

Kooperatiba industrialek 31.736 langile izan zituzten; 2014aren amaieran fakturazio osoa 4.754 milioi euro izan zen, eta emaitzak, 191 milioi euro, aurreko urtean baino %80 hobeto. Gainera, 247 milioi euro inbertitu ziren industria kooperatibetan.

Atzerriko merkatuetako salmentak dagoeneko industria arloaren %71 dira. Ezarpen berriak egin ziren Txina, India, AEB, Mexiko eta Brasilen, eta, ondorioz, dagoeneko 125 filial produktibo daude atzerrian.

Industrian, "merkatu nazionala suspertzen ari dela egiaztatu" du Korporazioak, izan ere, azken urteetan lehendabiziko aldiz, salmentak handitu egin dira aurreko ekitaldiarekiko (%1,7), 1.400 milioira iristeraino.

### EAEko patenteen laurdenak

145 milioi euro inbertitu zituen iaz Mondragonek I+G-n, %8,93 balio erantsiarekiko, eta %3,07 guztizko salmentekiko. Arlo hori osatzen duten 15 erakundeek 1.700 pertsona enplegatzen dituzte. Horrez gain, produktu eta zerbitzu berrien salmentak 620 milioi eurora iritsi ziren, salmenta zifra osoaren %13.

Guztira 479 patente familia ditu Korporazioak, EAEko %25.

Finantzen Arloan, urtearen amaieran bilakaera positiboa zuen, bai solbentzia ratioetan bai likidezia eta berankortasunean. Arlo horretan 109,2 milioi euroko irabaziak lortu ziren, %24,6ko igoera. LagunAro, EPSVko ondare fondoa 5.566 milioira iritsi da 2014aren itxieran, aurreko urtean baino %6,93 gehiago.

### Konfiantzazko mezua

Korporazioko Kontseilu Orokorreko lehendakari Javier Sotilek konfiantzazko mezua helarazi du etorkizunari begira: "Kudeatzeko eta berritzeko ahalmenak negozio lehiakorrak sustatzeko, konpromiso kolektiboak eta kooperatiben arteko elkartasunak aurrerantz bultzatuko gaituzte". Sotilek azaldu duen nahia da 2014a "inflexio puntua izatea ekonomia suspertzeko etapa berri baterantz, batez ere ekonomia europarrari, espainiarrari eta euskaldunari dagokionez".

**ESANAK**

**"2014a inflexio puntua izan dadila etapa berri baterantz"**

JAVIER SOTIL
MONDRAGONEKO PRESIDENTEA




Joseba Madariaga eta Xabier Egibar, txostena aurkezten. | LABORAL KUTXA

## Euskadiren ekonomia %2,6 haziko da urte bukaerarako, Laboral Kutxaren esanetan

**L.K.** | DEBAGOIENA

Iaz hasitako hazkundeak jarraitu egingo du 2016ra arte, gutxienez; Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomia % 2,6 haziko da aurten eta Nafarroako Foru Erkidegoarena, % 2,9. Horrela jakinarazi du Laboral Kutxak Euskal Ekonomiaren 2014ko Txostenaren eta 2015erako eta 2016rako aurreikuspenen aurkezpenean, eguenean.

Iaz, EAEren BPG %1,2 handitu zen, eta lan-merkatuak inflexio-puntua izan zuen; %1 murriztu zen eta %16,3ko langabezia-tasarekin bukatu zen urtea. Konklusioa honako hau da: langabezia-tasak murrizten hasi dira pixkanaka. Eraikuntzak ahultzen jarraitu zuen, baina industriak eta zerbitzuek hazkundeak erregistratu zituzten.

## Mondragon Korporazioa auzitara eramateko 900 lagunek eman dute izena Ordaindu elkartean

Maiatzaren 14ko batzar orokorrean hartu zuen Ordainduk Mondragon Korporazioa auzitara eramateko erabakia, eta egun hartan bertan jarri zituen martxan korporazioaren kontrako demanda ipintzeko erremintak. Bada, 900 pertsonak eman dute izena demanda horrekin bat egiteko. "Erritmo onean" doaz, Ordainduko ordezkari Mikel Olaberen hitzetan.

**UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA**

**Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!**

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

Baita hemen ere: *udakoargazkiak* *udakoargazkiak*


NEREA MENDIOLA . 2014ko Sari Nagusiaren irabazlea.


XABIER URTEAGA . 2014ko bigarren sariaren irabazlea.


ITXASO KALBANO. 2014ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

**Oinarriak***

**Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
**- Egilearen izen-abizenak eta herria.**
**- Harremanetarako telefonoa.**
**- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
**- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**

- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.eus* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrrasate
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

**HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!**

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, @udakoargazkiak helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: *ttiki.com/70956*

**Sariak**

**1. saria: Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.**
24 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa / ISO 100-12.800 sentsibilitatea / Integratutako edizio funtzio ugari.







**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
**Herritarren saria:** Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
**Boto emaileentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
Begira argazkilaritza
ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA JATETXEA
Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin
karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

## ZABALIK



**IRAITZ AGIRRE**
goiena.eus/komunitatea/

# 'Mugakoak'

Baratzerik ez eduki arren, Jakoba Errekondoren *Bizi baratzea* liburua mesanotxeko irakurgai bihurtu dut asteotan. Bada bertan zer pentsatua eman didan berba eta kontzeptu bat: *ipularra*. Ipar Euskal Herrian laborantzarako sailaren ertzetan landu gabe geratzen den zatiari deritzo. Bertaratzeko, tresnak inguratzeko, hesiak jartzeko eta jorratzeko lursaila. Leku batzuetan soro-ertza; gure inguruan, *mugia*. Zenbait lekutan balio gutxi aitortzen zaionari ere *ipularrekoa* esaten ei zaio, bazterreko kontua, bigarren mailakoa.

Errekondok dio baratzea bera ere ertzetakoa dela, besteak beste, baina, nagusiki, emakumeen kontua izan delako. Baratzetik *hARtzeko, EMatea* ezinbestekoa delako, amandreak izan dira ortuko jakintza belaunaldiz belaunaldi transmititu dutenak.

**Lurra da baratze osasuntsu eta oparo baten oinarria**

Gure bizimodua eta mundu ikuskera arautzen duen sistema gupidagabe honetan, emakumeak *ipularrekoak* gara. Baina ez gara bakarrak. Herritarren gehiengoa gara *mugakoak*. Migratzaileak, haurrak, heteroarauarekin bat egiten ez dugunak, funtzionalitate anitzekoak, prekarioak, nagusiak, hizkuntza gutxituetan mintzo garenak.. Eta Euskal Herriaz ari bagara? Gure ustezko erdigune honetatik ez al ditugu mugako bezala ikusten askotan ipar euskal herritar, arabar edo nafarrak?

Aurreko asteko *Zabalik*-en Oihan Vitoriak zioen: "Hobe joango litzaiguke zapaltzaileen jokoari bizkar eman eta gure neurrira eraikiko bagenitu herri honetako zubiak. Haziak erein, landatu eta sustraietatik irteteko garaia da, arriskatzekoa". Bat egiten dut horrekin. Irauli arren, ordea, jorratu nahi dugun lursailak apenas du ongarririk, nekez erneko da ezer berririk bertatik. Lurra da baratze osasuntsu eta oparo baten oinarria. Zenbat eta biziago, orduan eta hobeto. Ipularretakoak erdigunera ekar ditzagun, nahas ditzagun, elkarlanean jarri. *Bizi baratzea*-n esaten den bezala, gaur egun, iraultzailea den gauza bakanetako bat baratzea da. Gure neurrirako baratzerik egin nahi dugun erabakitzea da orain kontua.

## USTEAK USTE

**JULEN IRIONDO** | jiriondo@goiena.eus

# Adora dezagun Jimenez!

PSNko buru ohiak esan du: "Ni abokatutzatik etorri nintzen, lehenik, nire alderdia zerbitzatzera; Nafarroa, zerbitzatzera, bigarrenik [ondo dago aitortzea]; eta etorri nintzen dirua galduz. Iruditzen zait orain soldata jaitsi dutela dioten askok dirua irabazten dutela, lehen lau *txakur handi* irabazten zituztelako". Gauza normala behar lukeena –bere kasua; zerbitzari publikoak karguaren lan eta arduren arabera irabazi behar duela ulertzen dut nik, ez arlo pribatuan irabazten zuenaren arabera– salbuespenezko goraipatu beharrekotzat hartzen du Jimenezek, eta euren soldata jaitsiz eredugarri dihardutenei burla egin. Ea aldatzen den zerbitzu publikoari buruz orain arte askok izan duten kontzeptua ere!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | goiena.eus/komunitatea/




## GUTUNAK

# Aukera galdua euskararentzat

**Eñaut Muxika Olasagasti**
(AEDko Zuzendaritza Batzordearen izenean)
Arrasate

Pasa den ekainaren 13an, hurrengo lau urteetan gure Udala gidatuko duen udalbatza osatu zen.

AEDtik arduraz baloratzen dugu udalbatza horrek euskaraz jarduteko gaitasun osoa ez izatea.

Izan ere, horrek Udaleko lan-hizkuntza baldintzatuko du ezinbestean, eta euskara bigarren mailako hizkuntza izateko arriskuan utzi, beste behin ere.

Aukera polita galdu dugu, beraz, urrats erabakigarri bat egiteko Udala eta, oro har, herria euskalduntzeko bidean. Legegintzaldi oso bat daukagu aurrean, dagokienak arazoaz gogoeta egin eta lau urte barru beste egoera batean egon gaitezen ahalegintzeko. Jakin dezatela AED bidelagun izango dutela, horretarako prestutasuna izanez gero.

# 30 minutuz

**Ekhiñe Atorrasagasti eta Ainhoa Narbaiza**
(Martxanterak! Taldeko kideak)
Bergara

Sexu eraso larria gertatu da Iruñeko sanferminetan. Hori salatzeko, 30 minutuz musika kendu zuten tabernetan. Sabela nahasi zaigu askori erasoaren berri izatean. Hedabideetan eta kafe-tarteetan etengabe azpimarratzen da sanferminak "legerik gabeko jaiak" direla. Baina ez dago sobera gogora ekartzea adierazpenaren eta askatasunaren santutegi ditugula Euskal Herriko hiriburu zaharreko jaiak. Garai zailenetan ere, umorea herritarren arma nagusi eginez, ohorezko herri topagune.

Ez da harritzekoa, beraz, iruindarrek emakumeen aurkako erasoei aurre hartzeko duten grina. Sentsibilizazio eta aldarrikapen kanpaina ugari egin dituzte. Iragarki matxistak kentzeko eskaera, txupinazoan eraso sexistak saihesteko neurriak, formazioa herritarrei, kazetariei, udaltzainei, babes zibileko langileei, baita autodefentsa feminista tailerrak ere. Asko dago egiteko, baina iruindarrak ari dira. Horregatik izan dugu 19 urteko neska gazteak jasandako erasoaren berri. Ez da isilpean geratu eta modu eredugarrian erantzun egin diote kolore ezberdinetako herritarrek aho batez.

Lekukoa, jasoko dutenen zain da. Erasoak ez baitira festa giroan bakarrik gertatzen. Emakumeok eguneroko bizitzan, hainbat mailatan, jasaten dugun errealitatearen parte da. Hurbileko lagun, militante, lankide, familiako edo bikotekideari eraso bat leporatzen diotenean ere 30 minutuz isiltzen gara, batzuetan bestaldera begiratuz eta "ziur neska hasiko zela berotzen", "ez zen hainbesteraino izango"… pentsatuz, esanez. Ez baita atsegina, ez da erosoa, gogorra da, emakumeok, emakume garelako, askotan ikusezin den errealitatea pairatzen dugula ikustea, horretaz jabetzea.

Saia gaitezen 30 minutuz gertuan edo ezezagunaren erasoa jasan duenaren larruan jartzen. Ingurura begiratzen. Ez dira eta gutxi izango, zoritxarrez. Saia gaitezen ez isiltzen.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

# HERRIAK



Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritza berria. | JOSU ELORTZA

BERGARA

# Haize eta gogo berrituak Bergara Kirol Elkartean

- Zuzendaritza berriak heziketari eta balioei eman nahi die garrantzia
- Realeko emakumezkoen taldeak Agorrosinen jokatuko du abuztuan

ESANAK

**"Elkartea herritarrengana hurbiltzea dugu helburu"**

JOSU ELORTZA | PRESIDENTEORDEA

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Bergara Kirol Elkarteak estreinatu berri duen lantaldeak kluba eraberritzeko proiektua dauka esku artean, eta jada badabiltza horretan lanean. Ekainaren 24an izan ziren hauteskundeetan garaile izan zen hautagaitzak orain dela zortzi urtetik klubeko zuzendari den Pedro Rico du buru, baina, gainontzean, zuzendaritza batzordea ia goitik behera aldatu da.

Finkatu dituzten helburuen artean, "elkartea herrira zabaldu eta bergarararrekiko hurbiltasun handiagoa lortzea" dago. Horretarako, kaleko ekintzetan haien presentzia areagotu eta komunikazio arloa sakonduko dutela aurreratu dute Manu Diaz kirol arloko arduradunak eta Josu Elortza presidenteordeak. "300 neska-mutil daude futbol harrobian, baina orain arte hark egiten duten lana futbol zelaian soilik ikusi da", dio Diazek.

Lan ildo horren baitan, komunikazio bide berriak aprobetxatu nahi dituzte; horren adibide, elkarteak sortu berri duen Twitter kontu ofiziala. "Gaur egun informazioa nondik mugitzen den ikusita, pentsatu genuen Internet eta sare sozialak aprobetxatzea oso garrantzitsua zela".

**Kirola baino gehiago**

Zuzendaritzako kideek azaldu dutenez, kirol arloan ere haien jarrera "heziketa eta balioen aldera berrorientatu" nahi dute.

Harrobia neska-mutiko gazteengan hasten denetik nagusienen mailetaraino, "prozesu horretan hezkuntza eta kirola batera joan dadin" egingo dute lan, Elortzaren esanetan.

Diazek azaldu du neska-mutikoek astean ordu ugari pasatzen dituztela entrenatzaileekin, eta hezitzaile papera ere betetzen dutela haiek. "Gure apustua entrenatzaileak formatzea da, ez bakarrik kirol mailan, maila guztietan". Futbol eskolako txikienei, batez ere, "lehiakortasunaz gain", beste balio batzuk badirela erakustea izango da. "Errespetua, adiskidetasuna, galtzen ikastea...", hala azaldu du Elortzak.

**Emakumeei bultzada**

"Bergara emakumezkoen futbolean erreferente izatea nahi dugu", azaldu du kirol arloko arduradunak. Gaineratu du seguruenik horixe izango dela erronkarik zailena, baina lanean hasiak dira dagoeneko.

Horren adibide da abuztuaren 26rako adostu berri duten partidua. Realaren lehen mailako taldea SD Logroño errioxarren aurka arituko da Agorrosin zelaian, arratsaldeko zazpietan hasita, lagunarteko partiduan. Horren bidez, besteak beste, herriko neska gazteenengan zaletasuna piztu nahi dute.

Elkarteko kideek azaldu dutenez, futbolean izena ematen duten neskak mutilak baino askoz gutxiago izaten dira. Hori lantzeko "Debagoien mailan lan egitea" komenigarri ikusten dute, herri guztien arteko elkarlana bultzatuta.

**Bergararrak oinarrian**

Gizonezkoen futboleko lehen taldeari dagokionez, joan den denboraldian Ohorezko Erregional Maila galdu du eta Preferente Mailan arituko da datorrenean. Orain, lehenbailehen maila berreskuratzea da haien helburua.

Horretarako, kanpoko taldeetan zebiltzan jokalariak berreskuratu dituzte, eta herriko jendearen alde egin dute, "kanpokoei mugarik jarri gabe, baina". Futbolari bergarar guztien eredua eta ispilua herriko taldea izan dadin nahi dute.

Harrobiko mailetarako izendatu dituzten entrenatzaile berriei begiratuta ere igartzen da asmo hori. Gehienak klubean jokatzen ari direnak edo orain dela gutxira arte aritutakoak dira. Horretaz gain, aipatzekoa da haien gaztetasuna; izan ere, izendatu berri guztiak 30 urtez azpikoak dira. Manu Diazek dioenez, orain arte uste zuten errelebo hori lortzea "oso zaila" izango zela. Edozelan ere, "ezustekoa" izan dute, eta haientzat "ederra izan da entrenatzaile berriak egotea eta klubeko jendeak konpromiso hori hartu izana.

**Beste kirolekin harremana**

Futbol klubak herriko beste kirol klubekin daukan harremanaz galdetuta –eskubaloia, pilota, saskibaloia...–, Josu Elortzak dio "azkenaldian apur bat galdu den lotura" berreskuratu egin nahi dutela. "Talde bakoitzak bere autonomia dauka, baina elkarrekin lan egiteko aukera asko egon daitezke. Egon daitezkeen desberdintasunen gainetik, guztiok gara kirolariak eta bergararrak, eta ziur sinergia asko egongo dela", dio Diazek.

## Euskarari garrantzia

Harrobiko taldeetan euskararen presentzia sustatu nahi dute Bergara Kirol Elkartean. Horretarako, Udaleko Euskara Saileko langileengana jo zuten, laguntza eske. Orain arte ere elkarrekin lanean aritu izan dira Udala zein kirol elkartea, baina orain, hori "aurrerago eraman" nahi dute, Manu Diazen esanetan. Alde biak asteon bildu dira euskara plan berriaz hitz egiteko.

Diazek adierazi du bilera "oso polita" izan zela, eta errutina baten barruan biltzen jarraitu nahi dutela. Plazaolak, berriz, adierazi du haiek ere "inpresio onarekin" irten zirela bilera hartatik.

Badira hiru urte baino gehiago Bergarako Udaleko Euskara Batzordetik herriko kirol elkarteekin euskararen arloa lantzen ari direla, Estepan Plazaola arduradun teknikoak azaldu duenez. Lehenik, helburu batzuk finkatzen dituzte klubekin batera, eta ondoren, horren jarraipena egiten dute. Geroztik, euskararen erabilerak "kirol guztietan egin du hobera", dio Plazaolak.

Gai horrekin lotuta, elkarteei emandako diru laguntzen %10 haietan egiten den euskararen erabileraren arabera zehazteko neurria jarri zuten martxan Bergarako Udaletik.

# EAJ eta PSE-EE gobernuan eta Baleike Gizarte Zerbitzuetako buru

▸ Alkatearen arabera, talde "sendoa, egonkorra eta anitza" izango dute Arrasate kudeatzeko

▸ EH Bilduk batzorde kopurua murriztu eta Ubarretxenaren soldata %43 igo izana salatu du

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

EAJk akordioak sinatu zituen astelehenean PSE-EErekin eta Baleikerekin datozen lau urteetarako: lehenengoa Udal Gobernuan egongo da eta bigarrenak udal kudeaketan modu zuzenean parte hartuko du, Gizarte Ongizatea batzordearen ardura eurena izango da-eta. Arrasatek Udal Gobernu talde "sendoa, egonkorra eta anitza" izango duela azpimarratu zuen Maria Ubarretxena alkateak, eta oso pozik azaldu zen: "Talde politiko guztiei eman diegu aukera udal kudeaketan parte hartzeko, baina, tamalez, beste bi alderdiek ez dute nahi izan modu zuzenean parte hartu".

Hala ere, "eskuzabaltasunez" jokatuko dutela eta beste alderdiek ere "ateak zabalik" izango dituztela gaineratu zuen alkateak. Bide horretatik akordio puntualak ere lortu nahi ditu Ubarretxenak, eta talde guztiek "arduratsu eta erantzukizunez" lan egitea espero du. Bestalde, udal ordezkarien kostua aurreko agintaldikoarekin alderatuta %2 jaitsiko dela nabarmendu zuten jeltzaleek.


Udal Gobernua osatuko duten zinegotziak eta Baleikeko ordezkariak, osoko bilkuraren ostean. | JOKIN BEREZIARTUA

**Akordio bana**

PSE-EEko bozeramaile Oscar Garcia pozik agertu zen akordioarekin. Itunak Arrasatek zuen gobernagarritasun minimo bat bermatuko duela uste du Garciak: "Argi genuen akordio batera iritsi behar genuela arrasatearren mesederako. EAJren eta gure lehentasunen artean ez dago alde handirik, eta, horregatik, akordiora heltzea nahiko erraza izan da. Gauzak orain arte baino hobeto egiten hasiko gara, Arrasate martxan jarriko dugu". Bi alderdiek izango dute ordezkaritza gobernu batzordean, "elkar lagunduaz", baita batzorde informatzaileetan, udalbatzarrean eta Mankomunitateko organo kolegiatuetan ere.

Hala, "modu orokorrean", EAJk eta PSE-EEk Udalaren "egonkortasuna bermatzeko konpromisoa" hartzen dute, eta baita agintaldi osoan zentsura-moziorik ez aurkezteko edo babesteko. Gainera, urteroko aurrekontuak eta zerga-ordenantzak elkarrekin negoziatuko dituzte.

Bestalde, Baleikek Udal Gobernuko kide izateko proposamenari ezezkoa eman zion, euren batzarrean erabakita, baina, era berean, erabaki zuten Gizarte Ongizatea batzordea kudeatzeko ardura hartzea: "Gaizki pasatzen ari diren herritarrak laguntzeko esparrua dela ulertzen dugu. Garrantzitsua da garbi uztea akordio hau ez dugula sigla edo alderdi batzuekiko konpromisotzat hartzen; gure fideltasuna programari zor diogu, ez beste inori", adierazi dute Baleikekoek.

Hortaz, EAJk bost batzorderen ardura izango du, PSE-EEk birena eta Baleikek beste batena: "Udalbatzako bost talde politikoetatik hiruk herriaren kudeaketan hartuko dute parte modu zuzenean. Hori oso positiboa da", esan zuen alkateak. Astelehenean bertan erabaki zuten bilkuren ohiko deialdiak hileko lehen martitzenetan egitea, 18:00etan.

**Batzorde murrizketa salatu**

Osoko bilkuran, EH Bilduko bozeramaile Eneko Barberenak salatu zuen batzorde murrizketak kudeaketan eragingo duela: "Batzordeak horrela pilatzean arriskua dago gai batzuk atzean geratzeko, guretako garrantzitsuak direnak". Zortzi batzordeburuak gizonezkoak izatearekin ere ez daude ados: "Egungo garaiek eskatzen dituzte planteamendu parekideagoak". Gainera, Barberenak salatu du Gizarte Ongizatea tokiko gobernu batzarretik kanpo geratzen dela, eurendako "lehentasunezkoa" den batzordea.

**Alkatearen soldata**

EH Bilduk alkatearen soldataren igoera salatu zuen: "Ez zaigu bidezkoa iruditzen. Gaur egun soldata %43 igotzeak ez du justifikaziorik. EAJko bozeramaileak aipatu du EH Bilduren irizpidea dela aurreko laneko soldata errespetatzea, baina hori ez da horrela; EH Bilduko alkate batek 2.500 euro irabaziko lituzke garbi, gehienez, hilean", dio Barberenak. Ubarretxenak 65.000 euro kobratuko ditu urtean, Eusko Jaurlaritzako zuzendaritza karguan kobratzen zuena baino 2.000 euro inguru gutxiago.

Azkenik, Irabaziko Juan Luis Merinok uste du gai batzuek batzorde propioa behar dutela; ingurumena, kasu: "Ezer ez aldatzeko prestatu dute dena; aurpegiak aldatu dira, baina politika egiteko modua ez".


Udal karguen ordainsariak zehazteko bozketa: EAJ eta PSE-EE alde, EH Bildu kontra eta Baleikeren abstentzioa. | J.B.

## Batzordeak eta batzordeburuak

Zortzi batzorde informatzaile izango dira agintaldi berrian; horietako bat berria da. Aurreko lau urteetan baino bost batzorde gutxiago izango dira.


**JUAN KARLOS GARITANO (EAJ)**
▸ Enplegua eta Pertsonala


**IBON ARRUPE (EAJ)**
▸ Hirigintza, Ingurumena eta Mugikortasuna


**OSCAR GARCIA (PSE-EE)**
▸ Obrak, Zerbitzuak, Mantentze eta Auzoak


**ANDER GARAI (EAJ)**
▸ Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntza
▸ Ogasuna


**VICTORIANO FUENTES (PSE-EE)**
▸ Komertzioa, Turismoa, Teknologia Berriak eta Sustapen Ekonomikoa


**JUAN RAMON MENDIETA (EAJ)**
▸ Kultura eta Euskara


**IGOR URIZAR (BALEIKE)**
▸ Gizarte Ongizatea

arbolapeta
arrasate
beinke

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Ekaineko azoka; orduan, txakolina izan zen protagonista. | IMANOL SORIANO

# Sasoikoa irudimenez aldarrikatzeko azoka bihar

## Uztaileko merkatuan Garaion elkartekoek hartuko dute parte; Seber Altuben, 09:00etatik 14:00etara

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua da bihar, eta, beraz, baserritarren azoka egingo da Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Uztaileko azokako ukitu bereizgarria Auzolagun elkarteak jarriko du oraingoan: "Debagoieneko Landa Garapeneko bulegotik heldu zitzaigun proposamena eta baserritarren azokan txertatzea erabaki genuen. Sasoian sasoiko produktuen kontsumoaren aldeko sentsibilizazio kanpaina baten barruan, tailer edo ekitaldi berezi bat egingo dute Garaion elkartekoek. Interaktiboa izango da, bertaratzen direnek brotxetak eta bestelako jakiak prestatzeko aukera izango dute. Garaionekoek irudimen handia dute eta ziur gauza politak egingo dituztela", dio Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikorako teknikari Marga Garmendiak.

Sasoian sasoiko produktuak kontsumitzeak duen garrantzia izango dute hizpide azokan beste behin, baina gaia beste era batera landuko dute. Besteak beste, artelan bat ere egingo dute.

**Abuztuan azokarik ez**

Biharko azokan hamazortzi postu egongo dira, ohiko kopurua. Arrasateko sei postu, hiru Debagoienekoak eta gainerako bederatziak kanpokoak; udako produktuak izango dira: "Arrasaten geratzen dena pasa dadila azokatik, goiza poztuko diogu-eta", esan du Garmendiak. Abuztuan ez da azokarik egongo, irailean bueltatuko da: "Tomatearen bueltan zerbait berezia egin gura dugu, dastatze edo erakustaldi bat. Espero dugu gure asmoa betetzea".

NIRE USTEZ

**OIHAN ZUBIZARRETA**



# Puntu eta aparteak

Ez dela baikortasunik geratzen, ezetz esaten ikasi genuenetik. Ezkorrak garela hilezkorrak baino gehiago. Gehiegi sinesten dugula, inoizko sinestun gutxien dagoenean. Biblia ez dela bakarra, errealitateak bezain beste doktrina daudenean. Islamistak garela, demokratak bezainbat.

Ez dela ametsik geratzen, dena posible den aroan. Artistak eskaleak direla, publikoa noiz iritsiko den zain, argiak noiz itzaliko diren galdezka.

Arrakastak goratzen zaituen bezala utz zaitzakeela beheraino ero(r)tzen. Artea dela bizitza eta bizitzea artea dela.

Bizitza ez dela literatura, ezta bertsoa. Koadroak hilda daudela eta musika haizeak daramala. Bizirauteko gakoa ez dela irabazi edo galtzea, ez lehia, ez hobeak izatea. Perfekzioa ez dela bizirauteko beharrezkoa.

Dena gezurra zela, engainatu gintuztela, sare sozialen erreinuan.

Kontraesana eta kontrara esana. Bake prozesuak zein atxiloketak, erreferendumak zein erraustailuak. Eta errealitateaz jabetzen ez garen herritarrak. Iluna dela etorkizuna.

Inoiz itzaltzen ez diren telebistak eta hautsak hartutako liburuak. Dena ulertu gabe, ulertzen diren esaldiak. Puntuak eta komak. Eta udarako puntu eta aparteak. Oporren bueltan ere artistak publikoaren zain segituko duela, bizitzaren espektakuluari galdezka.

**"Errealitateaz jabetzen ez garen herritarrak..."**

# Festa giroa Santa Marinan, Maalan eta Zerrajeran datozen egunotan

**J.B.** | ARRASATE

Uztailean jaiak dira hainbat auzotan. Aste bukaera honetan, sortu berri diren Zerrajerako jaiak izango dira, eta baita Santa Marinakoak ere. Santa Marinako jai batzordeak auzokideei, dendei eta elkarteei eskerrak eman dizkie eta gogoan izan dute Rakel Diaz auzo-alkate izandakoa. Datorren hilaren 22an Maala murgilduko da jaietan, uztaileko klasikoetako bat.

### ZERRAJERAKO JAIAK

**UZTAILAK 17**

- **17:00** *Zumba* erakustaldia.
- **17:30** Haurrentzako jolasak.
- **18:30** Puzgarriak.
- **19:30** Konpartsa txikia.
- **20:15** Boloa.
- **20:45** Haurrentzako afaria.
- **21:15** Auzo-afaria.
- **22:00** Dantzaldia: Amaia DJ.

### MAALAKO ERRABALEKO JAIAK

**UZTAILAK 19**

- **12:30** Meza, parrokian.

**UZTAILAK 22**

- **08:00** Etxafuego jaurtiketa.
- **17:00** Umeendako jolasak eta txokolate-jana.
- **19:00** Poteoa, herriko txistulariekin.
- **20:00** Mery May zuzenean, Monte tabernaren eskutik.
- **21:00** Auzotarrendako afaria estradetan.
- **22:00** Kafea, postrea eta dantza.
- **23:00** Su artifizialak.

### SANTA MARINAKO JAIAK

**UZTAILAK 17**

- **18:30** Banderaren igoera eta jaien hasiera.
- **19:00** Boloa alkatetzako leihotik.
- **19:30** Txokolate-jana, buruhandiak eta suziriak, Santa Marina elkartearekin.
- **19:30** Pintxo-potea auzoko txarangak alaitua.
- **22:30** Kaixo taldearen kontzertua.

**UZTAILAK 18**

- **10:00** Diana eta suziriak.
- **11:00** Puzgarriak Arizmendiko patioan.
- **11:00** Santa Teresako aparkalekuan umeendako jolasak eta ginkana, Txatxilipurdik antolatuta.
- **13:00** Auzo-poteoa txarangaz alaitua.
- **14:00** Auzo bazkaria Mentu enparantzan.
- **17:00** Mahai-futbol txapelketa, Montserrat tabernak antolatuta.
- **17:00** Puzgarriak, buruhandiak eta suziriak Arizmendiko patioan.
- **18:00** *Cojonudos* dastatzea Agerre plazan.
- **22:30** Amaiaren emanaldia Agerre plazan. Ondoren, su artifizialak.

**UZTAILAK 19**

- **10:30** Diana eta suziriak.
- **11:00** Puzgarriak Arizmendiko patioan.
- **11:00** Santa Teresako aparkalekuan umeentzako jolasak eta taloak egiteko tailerra, Txatxilipurdik antolatuta.
- **12:00** Auzo-poteoa txarangak antolatuta.
- **13:00** Meza nagusia Mesedetako Aman.
- **14:00** Erretiratuentzako bazkaria.
- **17:00** Billar txapelketa, Montserrat tabernak antolatuta.
- **19:00** Barbakoa Ugarte eta Donosti tabernek antolatuta.
- **20:00** El Bille musikariaren kontzertua Agerre plazan.
- **22:30** Azken traka eta jaien amaiera.




ARABAUTO
Portal de Gamarra, 46 A-B - 01013 - Vitoria-Gasteiz - Tel: 945 262 501 - www.arabautocars.com

Kontsumo mistoa: 5,0 l/100 km. $CO_2$ emisioak: 117 g/km

*Salneurri gomendatua penintsulan eta Balear uharteetan. Barne hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Asistance, sustapen deskontua, Pive 8 plana, BEZa eta IEDMT (Espainiako merkatuan gerta daiteke zure autonomia erkidegoan aplikagarri ez izatea). 3 urteko mantentze-lan kontratua (kilometraje-mugarekin). Barne dauden azterketak estandarrak dira, Garantien eta Mantentze-lanen Ziurtagiriaren Liburuaren araberakoak. Kanpo geratzen dira flotak eta enpresak. Eskaintza baliagarria da eskuzko Nissan PULSAR Visia 1.2 DIG-T 115 ZP (85 kW) autoa erosten duten partikularrendako eta autonomoendako, euren izenean dagoen erabilitako auto bat entregatzen badute eta RCI Banque SAren Magic Plan-ekin finantzatzen badute, Espainiako sukurtsalean. 24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoa, gutxienez 6.000 euro finantzatuta. Eskaintza ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta baliagarria da hil bukaerara arte edo Pive 8 plana bukatu arte (lehenago gertatzen dena). Informazio zabalagoa, gertuen duzun kontzesionarioan. Iragarkian agertzen den modeloa: Nissan Pulsar Tekna berria.

**Ander Garai** | Kirol zinegotzia

# "Klubei eskatu diet euren bileretara joatea, laguntza eraginkorragoa izan dadin"

## Argia da Mondrako presidente ohiak era berean dio Mondrak igoera lortuko duela datorren urtean

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Bizimodua erabat aldatu zaio azken asteotan Ander Garairi (Arrasate, 1987), eta Udalean bi batzorderen arduraduna izango den zinegotzi bakarra izateak (ikus 8. orria) ardura handia ekarriko badio ere, "gogotsu eta ilusio handiz" dago erronka berrirako. Bestalde, Mondrako presidente moduan egindako lanarekin "pozik" dago.



Ander Garai, Herriko Plazan. | J.B.

**Zergatik utzi zenuen Mondra?**

Udal Gobernuan egongo nintzela ikusi nuenean, ez zitzaidan etikoa iruditu Mondrako presidente eta Kirol zinegotzi izatea aldi berean.

**Nolako balorazioa egiten duzu presidente moduan egindako lanaz?**

Pozik nago. Emaitzak ez dira onak izan, baina klubaren egitura sendotu egin dugu eta beheko kategorietako formazioa hobetzen joan gara. Denborarekin ikusiko da bi urte hauetako lana ona izan dela. Oso talde ona izan dut ondoan eta horrek asko erraztu dit dena.

**Egoera ekonomiko zaila aurkitu zenuten sartzerakoan. Nola egin zenioten aurre egoera horri?**

Zuzendaritzan duela hiru urte eta erdi sartu ginen, 90.000 euroko zorra zegoela. Lehen helburua izan zen zorra negoziatu eta ahalik eta lasterren murriztea. Klubean ordaintzen zen apurra ezabatu eta bazkideen kuota 190 eurotik 350 eurora igota lortu genuen zorra kitatzea, eta, beraz, klubaren egoera orekatzea.

**Zein da zure garaiko lorpenik handiena? Eta ze arantza geratu zaizu?**

Lorpenik handiena izan da, nire ustez, lortu dugun entrenatzaile taldea. Oso talde prestatua da, kirol arloan zein pedagogikoan. Entrenatzaile horien lanak fruituak emango ditu etorkizunean. Arantzarik handiena izan da mutilen lehen taldea merezi duen mailan utzi ez izana. Hala ere, dauden jokalari eta entrenatzaileekin ez daukat zalantzarik datorren urtean igoera lortuko dela.

**Bestalde, nola daramatzazu lehen egunak udaletxean?**

Arrasatearrendako lan egiteko gogotsu eta ilusio handiz. Sail guztietako arduradunekin biltzen nabil, informazioa jasotzen, funtzionamendua ikusten...

**Kirola, Gazteria, Berdintasuna eta Hezkuntza. Nola egokitu zaizkizu?**

Lau sailak erlazionatuta daudela uste dugu eta sinergia positiboak lor daitezke guztiak bateratuta. Kirol klub baten kudeaketatik nator, eta esperientzia hori aberasgarria izan zitekeela pentsatu genuen. Gainera, esperientzia daukat hezkuntzaren munduan, eta gazteriaren zein berdintasunaren arloak ere gertutik bizi izan ditut, kirolarekin lotuta. Mondran egon izanak benetako beharrak identifikatzen laguntzen du. Horregatik, klub guztiei eskatu diet hilean behin edo bi hilean behin euren bileretara joatea, informazioa gertutik jaso eta laguntza eraginkorragoa izan dadin.

# Europako txapelketatik "oso gustura" itzuli da Iñigo Uribarren

**J.B.** | ARRASATE

Iñigo Uribarren atleta arrasatearrak lehen aldiz bizi izan du zer den Europako txapelketa baten lehiatzea. Tallinen (Estonia) aritu zen joan den aste bukaeran, 23 urtez azpikoen salto hirukoitzean, eta finalerako sailkatzeko gutxi falta izan zitzaion: "Pena izan zen finalean ez egotea, baina oso gustura bueltatu naiz, sekulako esperientzia izan da. Marka nahiko apala izan zen, eta hamaseigarren postuan geratu nintzen, baina pozik nago".

Hiru aukeratan, 15,66 metroko saltoa egitea lortu zuen: "Lehen saltoan oso urrun geratu nintzen, bigarrenean hobeto kalibratu nuen eta hirugarrenean egin nuen jauzi ona. Ez zen nahikoa izan, sekulako maila dago-eta". Finalean egotea zuen buruan, baina helburu nagusia esperientziaz gozatzea zen: "Bidea eginda dago hurrengorako".

**Faszitis mingarri bati aurre**

Espainiako txapeldun izatea lortu du aurten, "oso ona" izaten ari den denboraldian. Eta hori guztia, faszitis mingarri batekin hankan: "Sekulako sastadak eman izan dizkit taloian, eta nahiko gaizki ibili naiz. Baina ez dago aitzakiarik, txapelketetara joan egin behar da".

Pertika-jauzian, bestalde, Malen Ruiz de Azua eta Maialen Axpe arrasatearrek ere zuten finalerako sailkatzerik lortu.



Iñigo Uribarren jauzi hirukoitza egiten, Mojategin. | JAGOBA DOMINGO



# Antzerki "ganberro eta punka" domekan Seber Altuben

'Rico, rico, rico' kale antzerkia ekarriko dute Salitre antzerki taldeko 'clown' beteranoek



Jon Ariño, Josu Bilbao eta Jesus Peñas. | DAVID HERRANZ

**JAGOBA DOMINGO** | ARRASATE

Hogei urtez kutxan gordeta egon ostean, Salitre antzerki taldekoek *Rico, rico, rico* berreskuratzeari ekin zioten pasa den urtean.

Josu Bibaok, Jon Ariñok eta Jesus Peñasek ibilbide osoan zehar egin duten ikuskizun "ganberro eta punkena" berriz ere kalera atera dute, eta etzi, domeka, 20:00etan, Seber plazan izango dira hiru *clown*-ak; euria bada, Biteri plazan izango da.

Bilbaoren esanetan, ikusleak ez ditu epel utziko: "Gustuko edo ez gustuko izatea beste gauza bat izango da, baina erreakzioak sortuko ditu, ziur". Gaztetan etxean egitea debekatuta dagoen guztia egiteko aitzakia bezala sortu zuten *Rico, rico, rico*; eta orain mende erdia jo dutenean...: "Nagusiegiak garelako egin ezin dugun hori egiteko aitzakia perfektua izaten jarraitzen du".

**Kalearen magia**

Antzezlana berreskuratzeko aitzakia perfektua izan zen Suecako MIM eta Lekeitioko kale antzerki jaialdietako deia, duela hogei urte bertan egon ziren-eta. Gainera, kaleak "zerbait berezia duela argi dago eta hasieratik dibertimendu hutsa izan da *Rico, rico, rico*-ri berriz heltzea".

# Frankfurtera eta Berlinera doa Gose taldea

**J.D.** | ARRASATE

Maletak eginda Alemaniara doa Gose hirukotea astebururuan. Frankfurten eta Berlinen eskainiko dituzte kontzertu bana, zapatuan eta domekan.

Bihar, zapatua, Frankfurteko gaztetxean, Europako zaharrenetakoenean, joko du Gosek. Pasa den otsailean bertan egon ziren, eta, oraingoan, Park Fest jaialdian parte hartzeko deia jaso dute. Domekan, ostera, Berlinen egongo dira arrasatearrak; Euskal Etxeak antolatuta, Bethanien arte galerian eskainiko dute kontzertua Bi Bala laukotearekin batera.

## Arrakastaz jo du amaiera 'Arrasate 1945' erakusketak

**J.D./J.B.** | ARRASATE

"Pozik eta kalean lasai ibili ezinik", horrela dabiltza Arrasate Zientzia Elkartekoak *Arrasate 1945* erakusketa egin ostean. Pasa den zapatuan, uztailaren 11n, itxi zuten Kulturateko klaustroetan egon den erakusketa, eta herritarren erantzuna paregabea izan dela esan du Xabier Bengoak, AZEko kideak.

Inauguratu zen egunetik, ekainaren 12tik, eta azken egunera arte, "azken orduan jendea klaustroetatik atera ezinik" ibili dira.

**Oroimena ez galtzeko lanean**

"Esker onak ematea" izan da bisitari gehienen erantzuna. Arrasatear asko eta asko familia giroan joan dira 40ko hamarkadako Arrasate ikustera; ezagutzeko batzuk eta oroitzeko beste batzuk. Alberto Loiti, erakusketaren hazia landatu zuena, pozarren dagoela esan du Bengoak.

Azkenaldian, gainera, tresna eta artikulu asko jaso dituzte AZEko kideek, eta herritar askok esan diete *Arrasate 1945* erakusketak ibilbide luzeagoa beharko lukeela. "Hori, baina, ez dago bakarrik gure eskuetan", esan du Bengoak.



Erakusketaz gozatzen. | I.S.

## Amaia Oraa gitarrista eta Pecozza United, Jai Zale tabernan

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, musika zuzenean egongo Jai Zale tabernan. Gaur 23:00etan Amaia Oraa Niño gitarrista gasteiztarraren estreinako kontzertua izango da. Zapatuan, Peccoza United hirukotearen punk-rockak hartuko du taberna, *Homonimoa* estudioko lanari oihartzuna emateko prest, 19:00etan.


# MAALAKO ERRABALEKO JAIAK 2015

ARRASATE







ARREGI ARTE
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com
markoak margolanak obra grafikoa ispiluak erakusketak

Plus Ultra
TABERNA
Tel.: 943 79 20 57

ONDO PASAU!

**UZTAILAK 19, IGANDEA**
**12:30**ean meza Arrasateko parrokian

**UZTAILAK 22, ASTEARTEA**
**08:00**etan Etxafuego jaurtiketa
**17:00**etan Ume jolasak eta txokolatejana
**19:00**etan Poteoa Arrasateko txistulariekin
**20:00**etan Kontzertua Monte tabernaren eskutik
**21:00**etan Afaria estradetan
**22:00**etan Kafea, postrea eta dantza
**23:00**etan Su artifizialak
**23:00**etan: Su artifizialak.

KIMETZ
Taberna
Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hanburgesak
Pintxoak
Razioak
943 79 60 49
Maalako Errebala 15. Arrasate.

BIOK
ile apaindegi mistoa
943 79 63 76
maalako errabala 21
arrasate

BC GAZTE...
Jai zoriontsuak izan!
Tel.: 943 79 70 67

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Ondo pasau jaixak!
Tel.: 943 77 04 85

EXPRES KAFETEGIA
TERRAZA
ondo pasau jaietan!

ELKORO
ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA
Tel.: 943 79 45 99



# Santa Marinako jaiak 2015

## BERGARA

### Egubakoitza, uztailak 17

19:00 Pintxo-potea trikitilariek alaiturik.
22:00 Dantzaldia Etxalarko plazan.

### Zapatua, uztailak 18

12:30 Sevillanak eta dantza.
13:00 Triki-poteoa Matxiategin.
Arratsaldean zehar auzoko tabernetan karta txapelketak.
17:00 Piraguak errekan, Santa Marina ondoan.
Saltxitxa-parrillada eta inportazioko garagardoak Infernokuako terrazan. DJa zuzenean.
18:00 Bolo, toka eta igel txapelketak erretiratuen elkartean
19:00 Meza nagusia Santa Marina elizan.
Ondoren, Aritzeta abesbatza.
21:00 Auzo-afaria Matxiategin.
23:00 Dantzaldia DJarekin.
02:30 Txokolate-jana.

### Domeka uztaialk 19

11:00 Futbol txapelketa Agorrosinen.
Auzoko ezkonduak ezkongabeen aurka.
Luntxa parte-hartzaileendako.
11:30 Udal Bandaren kalejira.
12:30 Udal Bandaren kontzertua frontoian.
13:15 Barbakoa poligonoan, denendako.
13:30 Kantaldia: Arantxa eta Pantxo.
17:00 Apar jaia frontoian. Kukañak Etxalarren.
20:00 Kontzertua: Irala kalean
Lord Witch.
Idoia Bediaga.
Los Herzog.

**Akort publizitatea • Amparo ile apaindegia • Antia harategia • Berotzi ile apaindegia
Dragon Oriental jatetxea • Eladio oinetakoak • Erreki jatetxea • Estella ortopedia
Giartzu gimnasioa eta estetika • Itziar mertzeria • Maixabel's akademia • Mizpildi okindegia
Oreka fisioterapia eta logopedia • Rezola harategia • Toki Ona bodegoia • Tripontzi Ogiberri**

# Hamar batzorde denera eta PSE-EE Udal Gobernuan

▶ Batzordeei buruz iritzirik ere eman ezin izana kritikatu du oposizioak

▶ Alkateak adierazi du gobernatuko dutenei dagokiela erabakiok hartzea

## Antolaketa berriko hamar batzordeak eta batzordeetako buruak


**ANDER ALBERDI (EAJ)**
▶ Ogasuna


**JUANJE ALBERDI (EAJ)**
▶ Barne Antolamendua


**LANDER ARREGI (EAJ)**
▶ Obra eta Zerbitzuak


**ELENA LETE (EAJ)**
▶ Lurralde Antolamendua


**MARI CARMEN BARRENETXEA (PSE-EE)**
▶ Gizarte Zerbitzuak


**MAITE AGIRRE (EAJ)**
▶ Ondarea, Kultura eta Jaiak


**IÑAKI ARREGI (EAJ)**
▶ Auzoak, Landa Garapena eta Ingurumena


**IZASKUN LABAIEN (EAJ)**
▶ Euskara, Gazteria eta Hezkuntza


**SABINO AZKARATE (EAJ)**
▶ Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Enplegua
▶ Kirola

JULEN IRIONDO | BERGARA

Astelehenean egin zuten udalbatza berria osatu osteko aurreneko osoko bilkura, ezohikoa, eta aurrerantzeko funtzionamendurako hainbat erabakiren berri jakin ahal izan zen bertan, Udal Gobernua osatzeko EAJren eta PSE-EEren arteko akordioa ezagutzearekin batera.

Hamar batzorde izango ditu udal berriak –eskuinean ikus daiteke zeintzuk eta ze zinegotzi izango dituzten buru–. Guztien artean, Juanje Alberdi alkateak nabarmendu du ekonomia eta enplegua sustatzeko batzordea sortu izana –Alderdi Sozialistarekin egindako gobernu akordioko lehentasunetako bat–. Hasiera baten, astero egingo dituzte batzordeen bilerak, eta zinegotzi ez diren baina alderdiek izendatutako pertsonek ere parte hartu ahal izango dute horietan.

Batzordeetatik kanpo geratu dira, bestalde, eta zuzenean alkateak kudeatuko ditu beste zenbait gai: Udaltzaingoa, Partaidetza, Bizikidetza eta Informatika. Hala ere, alkateak adierazi du arlo horietan zerbait balego osoko bilkuran erabaki beharrekoa, legokiokeen batzordean aztertuko litzatekeela aurretik, baita Barne batzordean ere, "nahiz eta eskumena alkatearena izan".

### Ikuspegi desberdinak

Aipatutako gai horiek batzordeetatik kanpo utzi eta zuzenean alkateak kudeatzekotzat izendatu izana kezkaz hartu du udalbatzako bigarren indarrak; hala utzi zuen agerian EH Bilduk asteleheneko osoko bilkuran, eta baita eguaztenean egindako prentsa agerraldian ere, bizikidetzari eta partaidetzari buruz, adibidez, ondorengoa esanaz: "Guk uste dugu bi gai horiek eduki politiko handia dutela eta garrantzitsuak direla, eta batzordea beharko luketela. Kontua da alkateak berak bakarrik kudeatu behar baditu, gainerako talde guztiak geratzen garela parte hartu ezinda gai horietan".

Horrez gain, gaiak batzordeetan nola banatu dituzten ere ez du gustuko koalizio abertzaleak; EH Bilduren ustez, eman zaiena baino garrantzi handiagoa behar lukete, adibidez, ingurumenak, auzoek eta euskarak. Alkateak adierazi zuen udal kudeaketa ahalik eta modurik "zorrotz eta eraginkorrenean" egiteko tresnak direla batzordeak, eta egokien iruditu zaien bezala banatu dituztela gaiak, euskararen kasu kontretuari buruz, adibidez, esanaz, lehen batzorde propioa izan, baina bilerak hilean behingoak zirela, eta orain, berriz, hezkuntza eta gazteriarekin batera landu arren, asteroko edo bi astean behingo bilerak egingo dituztela; eta gai horiek elkarrekin jartzea justifikatu zuen "pertsona potente bat" edukitzeagatik gai horietarako [Izaskun Labaien].

Baina gaiak nola banatuta geratu diren bakarrik ez, banaketa hori erabakitzeko eurekin kontsultatu ere egin ez izana salatu zuten EH Bilduk eta Irabazik osoko bilkuran: "Alderdi bakoitzak proposa zezala egokien zeritzon egitura, eta guk malgutasun osoa izango genukeen; baina, behintzat, eskatzen duguna da gutxiengoak errespetatzea", zioen Irabaziko Aiert Lizarraldek. Horren gainean alkateak erantzun zuen ze batzorde eratu erabakitzea gobernatuko dutenei dagokiela.

Areago, EH Bilduk salatu du gobernu osaketari buruz jarduteko bilerara deitu ere ez zuela egin EAJk –PSE-EErekin eta Irabazirekin bildu zen–, nahiz eta hauteskunde egunetik izandako bilera bakarrean, ekainaren 10ean, "akordio zabaletarako eta adostasunetarako" prestutasuna agertu zieten jeltzaleek. Hitzok pozik hartu zituztela, baina errealitatea bestelakoa izan dela kritikatu du Barrusok. Koalizioaren bozeramaileak osoko bilkuran azaldu zuen eurek "erabakitzeko eskubidearen aldeko gobernua bakarrik" babestuko luketela esan ziotela EAJri; Juanje Alberdik, berriz, iradoki zuen hori horrela izanda EH Bilduk berak baztertu zuela bere burua gobernu osaketatik –PSE-EE zegoelako tartean–, EH Bildurekin bilerarik egin ez izana horrela arrazoituz. Zentzu horretan, agintaldi hasiera "eskas" gisa definitu zuen Barrusok, eta jarrera aldatzeko eskatu zien EAJri eta alkateari; "errespetua" eskatu zuen "udaleko bigarren indarrarentzat" eta ordezkatzen dituzten bergararrentzat.

Honekin batera, udala egiten ari denarekiko informazioa edukitzeko eskubidea aldarrikatu zuen Agurne Barrusok eguazteneko agerraldian; udaleko arduradun berriak "zenbait proiekturen gaineko birplanteaketa eta bilerak" egiten ari direla jakin badakitela, baina informaziorik ez dutela zioen, UNED eta Arrizuriagarekin, Laboratoriumekin, kultura aretoarekin eta azoka biziberritzeko egitasmoarekin gerta daitekeenari buruz kezka agertuz.


Herritar ugari aretoan, asteleheneko osoko bilkuran. | JULEN IRIONDO


EH Bilduren udal taldeko kideak, eguazteneko agerraldian. | J.I.

### Maite Agirrek dedikazio osoa

Gainerakoan, beste zenbait erabakiren berri ere eman zen asteleheneko ezohiko osoko bilkuran. Batetik, Maite Agirre zinegotziak karguari dedikazio osoa eskainiko diola: urteko 32.700 euroko soldata gordina jasoko du Agirrek. Bestetik, udalbatzaren eskumenekoak diren organo kolegiatuetan Bergarako Udalak izango dituen ordezkariak proposatu zituzten; Mankomunitatearen Juntan, adibidez, alkatea, Sabino Azkarate eta Lander Arregi izango dira. Ohiko osoko bilkurak hileko azken astelehenean egingo dituzte aurrerantzean ere, 19:30ean.

## Sei laguneko gobernua

EAJko Juanje Alberdi alkateak, Ander Alberdik, Maite Agirrek, Lander Arregik eta Sabino Azkaratek eta Mari Carmen Barrenetxea sozialistak osatuko dute Udal Gobernua –hurrenkera horretan izango dira alkateordeak ere.

Alkateak adierazi du gobernua osatzeko "akordio zabalagoa" egin nahi zutela, baina Irabazik adierazi ziela "nahiago zutela itxoitea eta gauzak nola diren ikustea, akordio puntualak eginez". PSE-EErekin gobernua osatuz, dena den, "egonkortasuna" lortu dutela dio –gehiengo osoa dute elkarrekin–, "aurrekontuak aurrera ateratzeko eta lau urteko proiektua aurrera eramateko". Gobernu akordioan zehaztutako lehentasunak ondorengoak dira: "Garapen ekonomikoa eta enplegua bultzatzea –eta horretarako batzorde berri bat sortu dugu–; zaborren gaiari ahal den bizkorren irtenbidea jartzea; eta gizarte gaiak indartzea".

Barrenetxeak, berriz, adierazi du gobernuan sartzeko erabakia hartu duela "erantzukizunagatik".

# Gaur jokatuko dituzte udako futbol txapelketako finalak

Getokuak–Ezdakiu, Matadas–Kiusnes eta The Purple–Osintxu

JULEN IRIONDO | BERGARA

18:45ean hasiko dira lehenengo neurketak Ipintzan. Zazpiko futboleko nesken eta beteranoen finalak jokatuko dira aurrena: nesketan, Matadas eta Kiusnes egongo dira aurrez aurre eta beteranoetan, The Purple eta Osintxu.

19:45ean, berriz, Getokuak eta Ezdakiu taldeen arteko finala hasiko da, zelai osoan. Martitzenean jokatu zituzten finalerdiak, eta emozio handiko partiduak izan ziren. Aurrenekoan, Santana River eta Ezdakiu aritu ziren lehian. Bigarrenak aurreratu ziren lehen zatian, baina Santana Riverrek bi gol egin zituen bigarrenean, eta finalerako txartela esku-eskura izan zuten; arauzko denbora betetzear egin zuten binakoa Ezdakiukoek. Penaltietan erabaki zen, beraz, lehia, eta hor lan bikaina egin zuen Ezdakiuren atezainak, lehen hiru penaltiak geratu eta taldeari sailkapena emanda –botatakoak hirurak sartu zituzten.

Beste finalerdian, 3-0 aurreratu zen Getokuak; SkaLibur 3-2 jarri zen, baina azken minutuan laugarrena egin zuten gorriek.



Ezdakiu taldea. | J.I.



Getokuak taldeko kideak. | J.I.

# Udako euskarazko postal lehiaketa

KOMUNITATEA GOIENA
JARDUN | BERGARA

Udan bete-betean gaude, eta udarekin batera datoz oporrak, bidaiak, jaiak, eguzkia eta aisialdirako tartea. Jardun Euskara Elkarteak udako euskarazko postal lehiaketa antolatu du aurten ere. Udak askorako ematen du, eta oporretan urrutira joan edo bertan geratuta ere, istorio txikiek asko esan dezakete.

Lehiaketan edozein pertsonak parte har dezake, nahi beste postal bidalita; gaia librea da. Postal guztiek jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan beharko dute; edozein lekutatik bidal daitezke, posta arruntez, helbide honetara: Udako euskarazko IV. postal lehiaketa; Jardun, Errotalde jauregia z/g; 20570, Bergara, Gipuzkoa. Ez ahaztu postalari zure telefono zenbakia jartzea. Postalak jasotzeko azken eguna irailaren 18a izango da. Saria, tableta bat, eta epaimahaiak, besteak beste, postalaren edertasuna, originaltasuna, edukia eta idazkera baloratuko ditu. Animatu eta parte hartu.

## NIRE USTEZ



JOSU ELORTZA

# Saltsa guztietako perrexila

Hamaika ikusteko jaioak omen garela dio esaera zahar batek. Beste batzuk, ordea, gutxi ez eta hamaika saltsatan aritzeko asmoz gabiltza batetik bestera. Azkenengoz elizan izan nintzenean entzundakoen ondoren, burutapen zehatz batekin atera nintzen; pasoko bizitza baten omen gaudenez, hobe izango dugu, ba, ikusten baino, zerbait egiten pasatzea, guztion mesederako.

Saltsa guztietako perrexila izateak baditu bere alde onak, baina ez pentsa, anonimotasuna galtzeak baditu alde ez hain onak ere. Norberaren esku dago bizitza nola pasatzen den ikustea edota ibilbide atseginago baten alde aritzea. Egindako lanarekin, kultura, kirol... zein arlo politikoan izanik, aldamenekoaren poztasuna lortzea gauza handia baita. Dena ez dela beti pentsatu bezala aterako, arrakasta eta porrotak izango dituzula jakinda, baina helburu zehatz bati inoiz bizkarra eman gabe arituko zarela argi izanez. Ikuskizun bat plazaratzeko ilusioz, kirol talde bat suspertzeko edo herritarron egunerokoa hobetzeko asmoz dabilen jendea ezagutzea sari handia izan da jada niretzat.

Gai zehatz batzuetan izango diren desadostasunen gainetik, elkarrekin lan egin eta harreman sendoak eratzea dugu erronka. Guztiok helburu bera izan behar dugulako, emandako hitza betetzea tokaten zaigu orain.

## Hiru auzo eta kaletako bizilagunak, ohiturari eutsiz, San Martzialera

Labegaraietakoek, Zubiaurrekoek eta Ozaetakoek abuztuan San Martzialera egiten duten txangoaren 50. aldia ospatuko dute hilaren 7an. Uztailaren 30era arte eman daiteke izena bazkarirako, Amilotxen.

## Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua egingo ditu domekan

Santa Marina jaietako hitzorduari hutsik egin gabe, Udal Musika Bandak kalejira egingo du domekan 11:30ean hasita. Ondoren, 12:30ean, kontzertua egingo dute udal pilotalekuan.

## OHARRAK

**JAIETARAKO TXOSNAK**
Astelehenera arte egin daiteke San Martin jaietako bi txosnak ustiatzeko eskaria: *www.bergara.eus*.

**HELDUEN ESKOLA**
Matrikula epea, irailaren 1etik 15era –943-76 44 52–. Eskaintza: Bigarren Hezkuntzako graduatua, Goi Zikloetarako sarbide-proba, ingelesa, informatika eta euskal artea.

# Asteburuan izango dira jaiak Santa Marinan

J.I. | BERGARA

Gaur, barikua, 19:00etan, hasiko dira jaiak, trikitilariek alaitutako pintxo-potearekin eta boccia saioarekin. 22:00etan, berriz, dantzaldia egongo da Etxalarko plazan.

Zapatuan, sevillanak eta urdaiazpiko ebakitzea, 13:00etan, eta triki-poteoa Matxiategin. 17:00etan, piragua jarduerak neska-mutikoentzat Santa Marinan, eta Infernokuan Alemaniako saltxitxak, musikarekin.

Bola, toka eta igel txapelketak egingo dituzte 18:00etan San Joxepen; Santa Marinan meza 19:00etan, eta Aritzeta abesbatza gero; 21:00etan, auzo afaria Matxiategin, musikarekin, eta 23:00etan DJa. 02:00etan, txokolate-jana.

Domekan, futbol txapelketa 11:00etan; barbakoa 13:15ean, poligonoan; 13:30ean Arantza eta Pantxoren kantaldia, Matxiategin; 17:00etan apar jaia frontoian, eta kukañak Etxalarren; eta 20:00etan kontzertuak Irala kalean: Lord Witch, Idoia Bediaga eta Los Herzog.

# Flauta kontzertuaren eta pailazoen ostean, aire zabalean zinema eta kale ikuskizuna datorren astean

J.I. | BERGARA

Bergarako Udalaren udako kultura egitarauak aurrera jarraitzen du, eta iragan martitzenean flauta doinuen txanda izan zen. Marta Camon Botella asturiarraren kontzertu goxoarekin gozatzeko aukera izan zuten osoko bilkuren aretoan batutakoek. Eguaztenean, berriz, Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek *Kontxo kontxo* izeneko kale-ikuskizuna egin zuten plazan; hirukoteak makina bat barre eraginda, tarte atsegina pasa zuten bertaratutakoek.

Datorren asterako, kontuan hartu beharreko beste pare bat hitzordu daude. Aurrenekoa martitzenean, 22:30ean, zinema-zaleendako. Robert Stromberg zuzendariaren *Maléfica* filma egongo da ikusgai Seminarioko karpan. Fantasia eta abentura uztartzen dituen filma da, 7 urtetik gorakoentzako.

Hori martitzenean; eta eguaztenean Malas Compañias konpainiaren *Txatarra* izeneko kale-ikuskizuna egongo da, 19:00etan plazan –euria eginez gero, Seminarioko karpan–. Zirku eta kale-antzerki ikuskizuna da *Txatarra*, umorea eta akrobazia darabiltzana, besteak beste.



Marta Camon Botella flauta jotzen martitzenean udaletxean. | J.I.

# Lagunartekorako astebete faltan, lan saiorik ez Eibarrek

J.I. | BERGARA

Iragarrita zegoen arren, Eibar ez da gaur Agorrosinen entrenatuko. Astebete falta da armaginek eta Real Unionek Agorrosinen jokatuko duten partidurako. 19:00etan izango da barikukoa, eta leihatilak ordubete lehenago irekiko dituzte: gazteek, jubilatuek eta langabeek 5 euro ordainduko dituzte, BKEko bazkideek 10 eta gainerakoek 15. Partidu aurretik, klubeko intsignia jarriko diote Fernando Oregiri, bere lanarekiko esker onez; amaieran, berriz, jokalariekin argazkiak eta solasean egiteko aukera egongo da.

# Futbolarekin batera beste sailak indartuko ditu UDAk

## 198.000 euroko aurrekontua onartu dute eta Agurtzane Elkoro da elkarteko bigarren presidentea

X.URZELAI/M.ALTUBE | ARETXABALETA

Batzar orokorra egin zuen egubakoitzean UDAk eta kirol proiektu berria aurkeztu zien bazkideei; datozen bost urteotara begira elkartea antolatzeko izango duten modu berria, hain zuzen ere. Izan ere, asmoa da futbolaz aparte gainontzeko sailak ere indartzea. Batzarrean Gipuzkoako futbol federazioko hainbat ordezkari ere egon ziren, horien artean Juan Luis Larrea presidentea.


Sariak jaso zituzten kirolariak eta Poloni Garziaetxabe bazkidea. | XABI URTZELAI

**Aurrekontu estua**

UDAko gorengo futbol taldeak Hirugarren Mailan jokatuko duela-eta inguruan ilusio handia sumatu du Adrian Merino presidenteak, baina datorren denboraldirako aurrekontua erakusterakoan garbi geratu zen ez dutela bururik galduko: "Aurrekontu estua aurkeztu dugu, baina bistan da igoera bat egongo dela, kategoria horretan gastuak handitu egiten direlako". Hala, igoera horri aurre egiteko proposatu zuten, batetik, bi partidutan klubaren egun izendatzea, eta bestetik, bazkideei %10eko igoera aplikatzea: "Geuri ere ez zaigu gustatzen halako neurriak hartzea, baina konturatu gara ez dagoela beste modurik. Batzarrean jendeak ondo onartu ditu proposamenak, eta pozik gaude". Elkartearen aurrekontua 198.000 euroren bueltakoa izango da.

**Bost urterako plana**

Bestetik, proiektu berria aurkeztu zuten: *UDA, herri sentimendua. 2015-2020 plana*. "2020an pentsatzen jarri gara futbolari dagokionez, baina, era berean, gainerako sailak bultzatzea derrigorra da", zioen presidenteak, eta gaineratu zuen: "Futbolean umeak gainezka ditugu eta ez dago guztiendako lekurik. Beste sail batzuek, ostera, ez dute zorte hori". Hala, giza laguntza bideratuko dute sail horietara, eta bigarren presidente bat izendatu dute horretarako: orain arte ere zuzendaritza batzarrean egon den Agurtzane Elkoro.

**Poloni Garziaetxabe saritua**

Batzarra bukatzeko, kirol sariak banatu zituzten azken urteotan egindako legez. Sail eta talde ezberdinetan arrazoi bategatik edo besteagatik nabarmendu diren jokalariek UDAko zuzendaritzaren eta batzar orokorraren aitortza jaso zuten. Saririk hunkigarriena Poloni Garziaetxabek jaso zuen, 55 urtez UDAko bazkide izan denak: "Domeka guztietan egon da Ibarran, egin euria, egin elurra, egin txingorra. Eta emakumeak futbol zelaira joaten ez ziren sasoian ere han zegon bera; hortaz, eredu da", zioen Merinok.

# Erakustaldiak, lehiaketak eta musika Portasolen

## Gaur hasiko dituzte jaiak rock kontzertuekin, bihar txakur erakustaldiak daude eta etzi zezentxoak

M.A. | ARETXABALETA

Txupinazoa botata, 18:30ean, eta buruhandien eta erraldoien kalejirarekin hasiko dituzte jaiak gaur, egubakoitza, Portasol aldean. Hango komertzioetako eta ostalaritza zerbitzuetako kideek antolatu dituzte, beste behin.

Gauean musika izango da protagonista. Batetik, rock kontzertuak izango dira Markole auzoan, kiroldegi aurreko zelaian. 21:30ean, D-skarga taldea eta 22:30ean Kadena Perpetua eta Craps. Eta bestetik, dantzaldia izango da Basajaun taldearekin, 22:30ean, Zaraia taberna alboko aparkalekuan.

**Txakurren erakustaldiak**

Bihar txistularien doinuek iratzartuko dituzte auzotarrak eta 11:30ean atletismo lasterketak jokatuko dituzte Bizkaia kalean. Ordu horretan txakurren erakustaldiak izango dira kiroldegiko zelaian eta 12:00etan, gimnasia erritmiko erakustaldiak Atseden taberna parean. Umeendako puzgarriak ere egongo dira 12:00ak eta 14:30ak artean Dorleta, Aretz eta Ibarra taberna inguruetan.

Arratsaldeko ekitaldiak hasiko dituzte mus txapelketarekin, 16:00etan Eguzki Alde elkarteko arkupetan, eta iluntzean kontzertuak izango dira: 19:30ean, Mister Drospers eta Baztertuak eta 22:30ean, Krisis eta Pixontxis. Dantzaldia, ostera, Obaneuke taldeak girotuko du Zaraiako aparkalekuan eta su artifizialak izango dira 00:00etan, kiroldegiko zelaitik botata.

**Paella lehiaketa**

Domekan, ostera, artisau azoka eta bigarren eskuko azoka egingo dituzte, 11:00etan, Atseden taberna parean, eta umeendako puzgarriak egongo dira 14:30ak bitartean Dorleta, Aretz eta Ibarra tabernen alboan.

Azken urteotan legez, paella lehiaketa egingo dute, 13:30ean, kiroldegiko zelaian, eta arratsaldean, 18:00etan, Gorritiren animaliak joango dira hara. Horiek bukatutakoan, auzoko nagusiena omenduko dute, baita 2015an jaiotako lehenengoa ere. Jaiok bukatutzat emango dituzte 21:00etan, txupinazoa botata.


Gimnasia erakustaldia iaz. | I.S.

# Jon Ander Barberoren irudia Andramaixak iragartzeko

## Hiru kartel aurkeztu dituzte lehiaketara

M.A. | ARETXABALETA

Andramaixetako egitarauak badu irudia. Jon Ander Barbero Pagaldai aretxabaletarrak egin du eta 300 euro eskuratu ditu. Hiru kartel aurkeztu dituzte lehiaketara eta epaimahaiak erabaki du Barberok egindakoa dela egokiena. Irudia zuri-beltzean eginda dago eta letrak, hori biziarekin. Egitaraua datorren astean egongo dela gertu iragarri dute.



Kartel irabazlea. | JON ANDER BARBERO

### 'Txarlestrup' lanarekin dator Zirika Zirkus taldea eguaztenean

Musika, charleston dantza, zirkuko akrobaziak eta umorea ekarriko dituzte Zirika Zirkus taldeko kideek datorren eguaztenean, hilak 22, Santa Kurtz kaleko plazatxora (19:00). *Txarlestrup* antzezlana eskainiko dute, familia giroan ikusteko antzerki-zirku ikuskizuna, hain zuzen ere.

### Aretxabaletarrek egindako 'Ur azpian' filma martitzenean

Jon Campo eta Ibai Iregi aretxabaletarrek eta MUko ikasleek Urkulu urtegiaren gainean egindako *Ur azpian* dokumentala emango dute martitzenean, hilak 21, 19:00etan. Ondoren, *Jurassic world* (AEB, 2015, 124 minutu) filma emango dute; sarrera lau euro da.

### Desfibriladorearen gaineko ikastaroa irailaren 3an izango da

Bihotzekoak emandakoan zelan lagundu ikastaroa egitekoak ziren Basotxo erretiratuen elkarteko kideak, baina irailaren 3ra atzeratu dute. Egoitzan izango da, 17:30ean. Gurutze Gorriko erizain Marina Madariaga izango dute lagun, eta desfibriladorea zelan erabili irakatsiko die.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Arrainak ontzian sartu dizkio saltzaileak bezeroari. | O.E.

# Arrandegietako eta harategietako erosketak, ontzietan

## 'Ontziratu zaitez' kanpainaren barruan, 1.500 tuper banatuko dituzte hilaren 28ra bitartean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Astelehenean hasi eta hilaren 28ra bitartean 1.500 ontzi ari dira banatzen *Ontziratu zaitez* kanpainarekin bat egin duten herriko arrandegietan eta harategietan. Ontziak bukatu bitartean, bana emango diote bezero bakoitzari, batean zein bestean egindako erosketak ontzian sartuta etxera eramateko, eta ez paperetan edo poltsetan, orain arte bezala.

Helburua, baina, ontziak erabiltzeko ohitura sustatzea da. "Egun hauetan Oñatin banatzen ari garen ontziak berdeak dira, tinta ekologikoa dute, egokiak dira elikagaiak sartzeko eta tamaina handikoak dira. Baina kontua ez da ontzi hauek banatzea, erabiltzea baizik. Gura dena da aurrerantzean jendea etxetik ontzi batekin joatea dendara, eta dendatik etxeko hozkailura zuzenean erosketa ontzian eramatea. Herritarrek ohitura hori hartzea da lortu gura dena", dio Amaia Otazok, Udalarekin batera kanpaina hori bideratu duen Kutxa Ekoguneko kideak.

Super BM dendako Tanya Jimenez arrain-saltzaileak adierazi duenez, gaur egun jende gutxi joaten da arraina erostera, adibidez, etxetik ontzia ekarrita: "Lau bat-edo bakarrik etortzen dira hona".

**Zozketa**

*Ontziratu zaitez* kanpainaren barruan, zozketa ere antolatu dute. Hala, datozen sei hilabeteetan, arrandegi edo harategietan ontziak erabiltzen dituzten bezeroen artean 30 euro zozkatuko dituzte hilean, erosketak egin dituen denda horretan bertan gastatzeko. Horretarako, kutxak jarri dituzte ontziak banatzen ari diren arrandegietan eta harategietan, bezeroek hara bota ditzaten euren datuekin betetako txartelak. Lehen zozketa abuztuko lehen astean egingo dute.

*Ontziratu zaitez* kanpainan parte hartu duten herriko komertzioak honako hauek dira: Fernandez eta Kresala arrandegiak, Antton, Garai eta Txantxiku harategiak eta BM eta Eroski supermerkatuak.



Olabarrieta sarreran ari dira obrak egiten. | O.E.

## Olabarrietako sarrera-irteera hobetzeko lau semaforo jartzeko lanak hasi dituzte

**O.E.** | OÑATI

Olabarrieta auzoko sarrera-irteera puntua hobetzeko lanak hasita daude. Lau semaforo jarriko dituzte, ibilgailuen abiadura mugatzeko eta auzoko sarrerak eta irteerak erregulatzeko. Semaforo horietako bi Oñatitik Legazpira doan GI-2630 errepidean jarriko dituzte, ibilgailuen abiadura moteltzeko. Beste biak, berriz, auzoko bidegurutzean bertan jarriko dituzte. Zebra-bidean jarriko dituzten horiek botoia izango dute, behar denean sakatzeko; besteek, abiadura detektatzeko gailua.

Oinezkoendako zebra-bidea argiztatu egingo da eta oinezkoendako gune bat egokituko dute auzoko bidegurutzean.

Auzotarrek eskatutako arazoak konpontzeko dira lanak, eta Aldundia ari da egiten.

## Hiru gaztetxo etorri dira Ukrainatik

Oñatiko Banoia Txernobilekin elkarteak 20 urte daroatza Debagoienera Ukrainako umeak ekartzen. Hiru gaztetxo etorri dira aurten, eta Oñatin egongo dira abuztuaren 29ra arte bertako harrera familiatan.



TXOMIN MADINA

## Haurren danborrada egingo dute, eta parte hartu gura duten umeek izena eman behar dute

Aurtengo San Migel jaietan egongo da, azkenean, haurren danborrada. Datorren urtean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan egongo diren ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute danborrada horretan. Parte hartu gura duenak, baina, izena eman behar du, eta horretarako bi bide hauek zabaldu dituzte: kultura etxean jarri duten postontzian datuak sartzea edo helbide honetara mezua bidalita: *oinatikotanborradatxikia@gmail.com*. Irailaren 1ean hasiko dituzte entseguak.

## Oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza hobetzeko bideoa aurkeztuko du Txirrinkak

Bizikleta erabiltzaileen, oinezkoen eta motordun ibilgailuen arteko elkarbizitza bultzatu gura du Txirrinkak, eta bideo bat atera du, Udalaren laguntzarekin, elkarbizitza hori hobetzeko. Bideo horren aurkezpena datorren asteazkenean, uztailak 22, egingo dute, 19:00etan, kultura etxean. Azkenaldian, oinezkoen zein ibilgailuen praktika txarren gaineko bideo txikiak zabaldu ditu, akatsak zuzentze aldera; eguaztenean, elkarbizitza hobetzen lagunduko duen bideo profesional eta osatua erakutsiko du.



AMAIA TXINTXURRETA

## 'Xolonpo' gogoan dutela pasatu dira Trianako jaiak

Trianako jaietan, omenaldi "xume" eta "hunkigarria" egin diote Jesus Urmeneta *Xolonpo*-ri, San Martinen. Auzotarrak, senideak eta lagunak izan ziren han. Herriko futbol taldean ezaguna, gaztetxearen "aitona" bezala gogoratua, sindikatuetan ere ibilitakoa... Lagun zuen Ruper Ordorika musikariak ere ez zuen hutsik egin ekitaldian. San Martinen bertan bota zituzten haren errautsak.

## Herri barruko zirkulazioan aldaketak egongo dira zapatu gauean, Kantoikrit egiten den bitartean

Bihar, zapatua, 22:00etan hasiko da Kantoikrit kriteriuma, eta zirkulazio aldaketak egongo dira herri barruko kaleetan. Hala, antolakuntzatik jakinarazi dutenez, 21:00etatik 23:00etara postetxe pareko geltokia ezingo da erabili. Bestalde, 21:30etik 23:00etara, kriteriuma egingo den zirkuitua itxita egongo da eta ibilgailuak ezingo dira handik pasatu. Ibilbidea da: Foruen plaza, Atzeko kalea, Santa Marina, Portu, San Anton kalea, Aita Madina, Lizaur, Unibertsitatearen etorbidea eta Foruen plaza.

## Igeriketa ikastaroetarako eta ur ekintzetarako izen-ematea astelehenean zabalduko dute

Datorren ikasturtean Zubikoa kiroldegiko igerilekuetan eskainiko dituzten igeriketa ikastaroetarako eta ur ekintzetarako izen-ematea astelehen honetan zabalduko dute. Uztailaren 20tik 24ra eman ahal izango da izena. Horretarako bigarren aukera irailaren 7tik 11ra izango da. Uztailean zein irailean, kiroldegiko bulegoan eman behar dira datuak. Bulegoa zabalik egoten den ordutegia hauxe da: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

# Gazte lokalen erabilera egokirako gomendio arautegia adostu dute

## Lokalen erabiltzaileek, bizilagunek, jabeek, gurasoek eta Udalak hartu dute parte azterketa prozesuan

**O.E. / M.A.** | OÑATI

Gazteen lokalen gaineko azterketa hasi zuten abenduan, eta aste honetan aurkeztu dute lokal horien erabilera egokirako baliagarria izango den gomendio arautegia. Prozesuan parte hartu duten alde guztien artean adostutako gida da, erabiltzaileen, gurasoen, jabeen, bizilagunen eta Udalaren artean landutakoa. Ordenantzaren zirriborroa ere egin dute; eta hori irailean onartuko dute.


Martitzen iluntzean aurkeztu zuten arautegia. | MIRARI ALTUBE

**Garbitasuna eta segurtasuna**

Gomendio-gida zehazteko kontuan hartu dute lokalak gazteen aisialdirako gune autogestionatuak eta pribatuak direla. Eta hausnarketa prozesuan agertutako bi kezkari erantzuten saiatu dira. Kezka horiek dira: lokalen segurtasuna eta duintasuna. Horretarako hainbat atal zehaztu dituzte; garbitasuna, esaterako. "Adibidez, lokalaren pareta konponduta, garbi eta margotuta egotea komenigarria dela bertan dauden gazteen osasun eta segurtasuna bermatzeko", dio Nerea Zubia zinegotziak.

Bizilagunekin eta gainerako herritarrekin elkarbizitza ziurtatzeko ere hainbat aholku jaso dituzte. "Kanpora ateratzen direnean gauzak, sofak edo bestelako altzariak, esaterako, ez oztopatzea bizilagunen atariko atea edo espaloiko pasoa", azaldu du Zubiak.

Bileretan ondorioztatu dute zarata dela kexa gehien sortzen dituen kontua. Hortaz, legeak dioena errespetatu beharko da, eta bi ordutegi zehaztu dituzte horretarako: egunekoa bata eta gauekoa bestea.

**Erregistroa**

Ordenantzaren zirriborroa ere egin dute. Hor jaso dituzte lokalen ezaugarriek eta baldintzek zeintzuk izan behar duten; horien artean daude: metro karratuko edukiera, suteen aurkako neurriak eta baldintza higienikoak eta sanitarioak. "Gauza zehatzak jasoko dira arautegian: dezibelioak ez pasatzea, bozgorailuak, telebista, musika tresnak... ate eta leihoetatik urruntzea eta abestiak edo txistuak gaueko ordutan ekiditea", azaldu du Gazteria teknikariak, Jon Lopezek.

Bizikidetza mahai bat osatu beharko dela ere zehaztu dute, arazoen aurrean bitartekaritza lanak egiteko. Ordenantza hori irailean aurkeztuko dute osoko bilkuran. " "Gero, urtebeteko epea egongo da dena arautzeko. Gaur egun lokaletan daudenak eta berriak ere erregistratzeko", esan du Nerea Zubiak. Lokalen erregistroarekin, lokal hutsen poltsa osatuko lukete lokal bila dabiltzan gazteendako.

NIRE USTEZ

**JOSU ZUBIA**



## Bost kaña eta 'El taxi'

Uda hemen da eta berarekin ekarri ditu azken *hit*-ak. Zoragarriak guztiak ere! *El taxi, El cocodrilo* eta tankerakoak. Hori da hori sortzaileen irudimen, leuntasuna eta kalitate jarioa. Gazte-giroko tabernetan abesti hauek besterik ez da entzuten eta askotan ez da besterik eskatzen.

Eta noski, plazeraren eta gozamenaren izenean, nola ez dituzte, ba, jarriko gure lan bikoitzeko tabernari-DJek? Pozgarria da jendeak abestiei horrenbesteko garrantzia ematea, esaten baita abestiek eragin dezaketela gure jarreran. Dantza, izerdia, edana, laztanak... eta hau guztia soinu-banda ezin hobeak lagundurik. Zer gehiago eska daiteke?

Zoragarria da gure haur eta gazteek –bai, haurrek ere bai– soinu-banda hauen letra sakonak ikastea –alderatzean hainbat poeta klasiko datozkit gogora–. Aurreko parrandan suertatu zitzaidan honako hauek entzutea –adibide leunenak idaztearren–. Batek zioen: "*Cho, cho, cho, fer para el taxi/ No me importa si es casada*". Beste batek: "*Tu sabe yo soy candela, tu sabe yo soy el rey de las nenas. Dale mamasita tacatá...*".

Hau esanik, barra atzeko karteltxo batek eman dit atentzioa. Hau dio: *Taberna honetan ez da eraso sexistarik onartuko...*

[Ea... tabernari-DJ eta juergazale maiteok: kartela edo *musika* hori –zabor nazkagarri hori ez esatearren–. Bata edo bestea. Biak ezin da...] Erasoa bozgorailuetatik datorren momentutik... onartua da.

# Oñatiko I. mendi martxa egingo dugu irailean

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
OÑATIKO MENDIZALE TALDEA

Oñatiko I. mendi martxa antolatu dugu irailaren 19rako. Oinez egiteko bi ibilbide pentsatu ditugu eta biak Foruen plazatik hasi eta han bukatuko dira. Probaren zati handiena Aizkorri-Aratz parke naturalean zehar kokatzen da. Luzeak 36,2 kilometro ditu eta 1.606 metroko desnibel positiboa. Laburrak, aldiz, 24,3 kilometro eta 1.180 metroko desnibel positiboa. Ibilbideak ondo markatuta egongo dira eta parte-hartzaileek kontrolguneetatik pasa beharko dute, derrigorrean, antolatzaileek jarritako ordutegi barruan. Kontroletan janaria eta edaria izango da nahi duenarentzat.

Izena *Kirolprobak.com* webgunean edo egunean bertan irteera-lekuan eman ahalko da: hamar euro federatuendako eta hamabi ez federatuendako. Egunean bertan apuntatuz gero, hiru euro gehiago.

Probaren amaieran ez da inongo sailkapenik izango eta partaide guztiei oroigarri bana emango zaie. Zubikoako dutxak erabilgarri egongo dira.

# Astebete aurtengo udalekuak bukatzeko

Uztailaren erdia pasa da eta udalekuek ere egin dute euren egutegiaren erdia baino gehiago. Astebete baino ez zaie geratzen herriko ume askori udaleku irekietan zein arte udalekuetan parte hartzeko. Udako kirol kanpaina ere udaleku horiekin batera hasi zen, baina abuztuaren bukaera arte jarraituko du.


TXALOKA


MIREIA BIKUÑA

NIRE USTEZ



OLATZ PAGALDAI

## Buruaren tranpak

Denok dakigu jada lurra borobila dela. Kristobal Kolonek demostratu zuen gizakiaren begirada itsasoan galtzen den puntu horretan ez zegoela amildegirik. Arrautzaren esperimentu zientifikoarekin erakutsi zien Espainiako errege katolikoei.

Arabiarrek esamolde bat dute: *Ez ezazu zure bizitza lautu lurraren borobiltasuna bilatuz.* Borobildu zure bizitza lurraren lautasunaz baliatuz.

Marokoko gau epeletan, teknologiarik gabe, izarrei begira, te beroa hartuz luzaroan egon ginen gai honi buruz eztabaidan... Ondorio garbia atera genuen: bost axola lurra borobila edo laua den, lurra ikusten dugun bezalakoa da. Eta lurraren borobiltasunari buruz eztabaidan jarduten dugun denbora hobe genukeela gure bizitza borobiltzen baliatu...

Txinatarrek badute esamolde bat: *Arazo batek irtenbiderik ez badauka, jada ez da arazo.*

Irakurle, zure burua jada galdezka arituko zaizu: zertara datoz Kolonen arrautza, Maroko eta txinatarrak? *Zaska!* Zure buruaren tranpan erori zara! Agertu da denok barruan daramagun Sandro Rey txikia! Etorkizuna asmatu eta lurraren borobiltasunaz arduratzen dena bere bizitzaren orografiari begiratu beharrean, irtenbiderik ez daukaten arazoez arduratzen dena...

**"Arazo batek irtenbiderik ez badauka, jada ez da arazo"**



Eskoriatzako denda baten ataria pegatinez josia. | I.B

# Euskararen sustapena bultzatzeko diru laguntzak emango dituzte

### Merkataritza eremuan errotulazioak edo irudi korporatiboan euskarazko elementuak jartzeko

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak merkataritza eremuan euskararen sustapena bultzatzeko diru laguntza deialdia egin du. Alegazioak aurkezteko epea eguaztenean, hilaren 15ean, amaitu zen. Hala, deialdia behin betiko onartuta gelditu da eta interesdunek laguntzak eskatu ahal izango dituzte errotulazioak edo irudi korporatiboan euskarazko elementuak jartzeagatik.

Deialdi horren xedea da Eskoriatzan euskararen erabilerarako diru laguntzak ematea. Bi eremu hauetan emango dituzte: euskara hutsezko errotuluak jartzeko edo irudi korporatiboa euskaraz jarri nahi duen merkatarientzat.

Diru laguntzak jaso nahi duenak Eskoriatzako Udal Euskara Zerbitzu bitartez tramitatu beharko du; kultura etxera joanda, *euskara@eskoriatza.eus* webgunera idatzita, edota 943 71 46 88 telefonora deituta.

Eskaera aurkezteko epea, berriz, 2015eko abenduaren 11 da eta aurkeztu beharreko dokumentuak *Eskoriatza.net* webgunean daude.

**Eusko Jaurlaritzaren deialdia**

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak merkataritza-saltokiak modernizatzeko 2015. urteko diru laguntza deialdia egin du; eskaerak aurkezteko epea irailaren 15a da, 12:00etan.

# II. areto futbol txapelketan parte hartzeko azken astea izango da

### Dagoeneko bost taldek eman dute izena

I.B | ESKORIATZA

Eskoriatzako gazte talde batek antolatutako II. areto futbol txapelketa uztailaren 24an, egubakoitza, jokatuko da Luis Ezeizako kantxan. Dagoeneko bost taldek eman dute izena txapelketan: Eskoriatzako bi taldek, Zumarragako batek, Aretxabaletako batek eta Arrasateko beste batek.

Aurreko astean, Zaldibarko 24 orduko txapelketan hainbat talderekin hitz egin zuten antolatzaileek, eta, batzuen baiezkoa jaso bazuten ere, oraindik izena eman barik dute. Antolatzaileen arabera, "beste sei taldek emango dute izena; hori uste dugu, baina izena eman barik dute oraindik. Guztira, hamaika talde inguru egongo gara, gutxi gorabehera".

**Jokatzeko egin beharrekoa**

Izena eman nahi duen taldeak 60 euro ordaindu beharko ditu, eta talde bakoitzak arduradun bat izendatu eta telefono zenbaki bat eman beharko du. Horretarako, Whatsapp aplikazioa erabiliko da, eta txapelketan jokatu nahi duenak 646 942 866 edo 688 687 075 zenbakira idatzi beharko du.

Lehiaketaren ordutegia ez dute finkatu oraindik; izan ere, izena ematen duen talde kopuruaren arabera zehaztuko dute zenbat orduko txapelketa izango den, eta noiz hasi eta bukatuko den. Hala eta guztiz ere, hiru sari egongo dira: lehenengoarentzat, batzen den diruaren %60 izango da; bigarrenarentzat, %30; eta hirugarrenarentzat, %10.

**Antolatzaileak talde bila**

Duela bi urte antolatu zuten lehen aldiz txapelketa, eta aurten ere parte hartuko duen Aretxabaletako Biris taldeak irabazi zuen. Sei taldek jokatu zuten lehiaketa, eta aurten talde gehiagok izena emateko ahalegina egingo dute antolatzaileek.

Zapatu honetan Aretxabaletan izango den zazpiko futbol lehiaketan izango dira Eskoriatzako lehiaketako antolatzaileak, taldeei gonbidapena egiteko.

## Fermin Balentzia beharrean Xabi Solano eta DZ izango dira Errekan Gora egitasmoaren barruan

Errekan Gora egitasmoaren barruan bihar, zapatua, Glaukoma taldea izango da Gernika plazan, 22:30ean. Informazio gehiago, 25. orrian. Bestalde, hurrengo aste bukaeran azken bi emanaldiak izango dira. Batetik, Kalakan taldea Santa Marine plazan izango da, eta zapatuko Fermin Balentziaren kontzertua bertan behera gelditu da, osasun arazoengatik. Haren ordez, Xabi Solano eta Esne Beltza taldeko DZ bikotea izango da Hotelean.

## Positibotasunaren gaineko tailerra emango dute Mendiola auzoko Areano landetxean

I.B | ESKORIATZA

Mendiola auzoko Areano landetxean emozioak lantzeko tailerra izango da uztailaren 21ean, martitzena, eta uztailaren 23an, eguena. Tailerra Jario Consulting formazio eta *coaching* enpresak emango du eta prezioa 50 euro da. Informazio gehiagorako, 686 88 55 21 telefonora deitu behar da.

"Tailer horren helburua emozioak eta erlazio positiboak potentziatzea eta negatiboak alde batera uztea da", dio Areano landetxeko Mikel Zamorak.

Giza baliabideen profesionala izan da urte askoan Mikel Zamora, eta *coaching*, adimen-emozio eta halako ikastaro askotan egondakoa da. Haren ustez: "Eguneroko bizitzarako aproposak dira horrelako ikastaroak".

**Ekintza ugari landetxean**

Duela gutxi, Mikel Zamorak Namibian egindako bidaian ateratako hainbat argazkiren erakusketa egin du Areano landetxean, eta bertan daude argazkiak ikusgai.

Bestalde, egingo den positibotasun tailerraz gain, yoga ikastaro bat egiteko asmoa dute hilabete honetan, eta baita antzerki bat edo beste ere.

Haren esanetan: "Gure asmoa jendea landetxera erakartzea da, eta landetxeari bizitza emateko ekintza kulturalak prestatuko ditugu".






I.B

## 'Uda osatuz' ikuskizuna bikain

Kontzientzia, artea eta harmonia bilatuz, pertsona osatzeko helburuarekin egindako ekitaldia egin dute Marijo Pagaldaik eta Marta Camon zeharkako flauta jotzaile eta Gijongo interpretatzaile gazteen lehiaketako irabazleak, Ibarraundi museoan. Musika oinarri izanik, hainbat estilo jorratu dituzte. Bertaratu direnak oso gustura izan dira ikuskizunaz gozatzen.



Atzo, eguena, herriko festa nagusiei hasiera emateko antzuolar ugari batu zen Herriko Plazan . | AITOR AGIRIANO

# 3, 2, 1... hasi dira Antzuolako jaiak!

Domekara arte, jai giroan, askotariko ekintzekin gozatuko dute antzuolarrek

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Irati Lizarralde eta Ander Jimenez alkate txikiek Beñardo Kortabarria alkatearekin batera jaiei hasiera eman zieten atzo. Herriko Plaza beteta, urte osoan esperoan egon ostean, antzuolarrek gustura hasi dituzte festak. Nahi adina ekintzaz gozatzeko aukera izango dute domekara arte. Hala, gaur, barikua, herri bazkaria egingo dute Kalebarrenen eta gauean pilota partiduak izango dira. Bihar, zapatua, Mairuaren Alardeak hartuko du protagonismoa herriko kaleetan barrena, 19:00etan.

**Musika egunero**

Herriko Plazan eta Zurrategin izango dira kontzertuak. Adin, estilo eta gustu guztiendako musika emanaldiak antolatu dituzte Udalak eta txosna batzordeak. Txosnetan, Klak!son, Joxe Replay, Itziarren Semeak... arituko dira; plazan, aldiz, hutsik egingo ez duen Joselu Anaiak taldea, adibidez. Gaztetxean DJ festa antolatu dute biharko.

**Azken orduko oharrak**

Gaur, barikua, poneyak eta zezentxoak *kanpo beltzean* izango dira, eta ez Zurrategin. Asmoa da zezentxoendako hesi berezia jartzea, eta, hartara, aurreko urteetan baino zezentxo handixeagoak ekartzea.

Esan behar da domekako bazkariko kantaldian Fermin Balentziak ez duela parte hartuko osasun arazoengatik. Haren ordez Anje Duhalde arituko da.

Bestalde, aurten hil den Gervasio Legorbururi omenaldia egingo diote Mairuaren Alardean. Bukaera aldera, Herriko Plazan egingo dute omenaldia eta alardearen alde egin duen lan guztiarengatik oroigarria emango diete senideei.



ANDER LARRAÑAGA

## Ongietorri aparta egin diote Hontzari antzuolarrek

Lumak ditu eta begiak ireki eta itxi egiten ditu. Gauean, berriz, argia egiten dute begiek; duda barik, besteekin konparatuz, buruhandi berezia da Hontza. Herriko bosgarren buruhandia da, eta, gainontzekoena bezalaxe, aita Iñaki Mata antzuolarra du. Barikuan egin zuten aurkezpena, eta harrera ezin hobea izan zuen antzuolarren aurrean. "Txistulariak eta herritarrak denak batera ikustea oso berezia izan zen", esan du Matak.

**Xabier Arregi** | MUko irakaslea

# "Nire tesian, merezi duen errekonozimendua egin gura nion Herri Eskolari"

Uztailaren 9a ezkero doktorea da Xabier Arregi, Mondragon Unibertsitateko irakaslea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea da Xabier Arregi (Oñati 1963). Uztailaren 9a ezkero doktorea da, gainera. Bikain cum laude jaso du aurkeztu berri duen Antzuolako Herri Eskolaren gaineko tesiak.



Arregi, tesia aurkezten. | MU

**Zergatik aukeratu duzu Antzuolako Herri Eskolaren gaineko tesia?**

Erronka pertsonala eta profesionala nuelako. Antzuolako eskolari merezi duen errekonozimendua egiteko. Momentu honetan Euskal Herri mailan eta baita Estatuan ere eskola erreferente bat izateko ezaugarriak dituelako.

**Ze ezaugarri ditu eskolak?**

Bi ezaugarritan laburtuz, batetik, eskolak dituen irakasle eta profesionalen komunitatea eta praktika dago. Egunerokotasunean profesionalak izaten ikasten dute. Hau da, identitatea duen irakasle talde bat izatea. Hezkuntza proiektu sendoa egin eta gauzatzen duena. Talde bat eratzea zaila da, baina are zailagoa da giza talde bat urtetan mantentzea. Bigarren zutabea, aldiz, irakasleek umeekiko duten begirada da. Helburu nagusia umeen ongizatea bermatzea dute. Hala, irakasleek garbi dute ikasleek eskubideak dituztela hezkuntza jasotzeko, eta horien berme sentitzen dira. Euren geletan dauden ikasleek giza talde bat osatzen dute eta giza talde horren garapen pertsonalean eta kulturalean eragin nahi dute. Testuinguru aproposak jarriz ikasten dute garapen hori lortzeko eta taldearen garapena bermatzeko.

**Zelako emaitzak ditu eskolak?**

Tesian ez dut gura izan ezer demostratu. Antzuolaren argazki osatuena ateratzea zen helburua. Zer den Antzuola ulertzea izan da nire tesiaren mamia. Antzuolan garatu dutena ondo ulertu eta nola egiten den ikustea, azaltzea, izan da nire tesiaren helburua. Egiten dutena koherentea da pentsatzen dutenarekin. Euren pentsamendua aztertu dut.

## Zenbait erabiltzailek diote Zupideko biribilgunea "estuegia" dela

AMAIA T. / MAIDER A. | ANTZUOLA

Herritar batzuek diote biribilgunean sartzeko asko jaitsi behar dela abiadura eta "estuegia" dela. Zenbait kamioi eta trailer biribilgune gainetik pasatzen direla ere esan dute herritarrek. Alkateak, berriz, dio Diputazioak aurrera eramandako lana izan dela biribilgunea, eta, berez, zirkulazio txikia hartzeko pentsatuta egindakoa dela. Gaineratu du uste duela orain lehen baino hobeto dagoela, adibidez, orain autobusek ez dutelako herri barrutik pasatu behar. Udaletxean biribilgunearen gaineko kritika formalik ez dute jaso, oraingoz. "Biribilgunea kamioiak gainera igo daitezen eginda dago; 30 kilometro orduko abiaduran joan behar dute. Hala, bidea estua izanda ere, kamioiak lasai asko sar daitezke bertan", azaldu dute Diputazioko teknikariek.



Zupideko biribilgunea uztail hasiera ezkero zabalik dago. | AITOR AGIRIANO

# Martitzenean eskainiko dute euskararen gainean egin duten 'lip dub'-a

## Udalekuetako gaztetxoek ikus-entzunezkoa grabatu dute 'Jaso dezagun euskara' abestia oinarri hartuta

**ARANTZAZU EZKIBEL** | ARAMAIO

Udalekuetako gaztetxoek *lip dub*-a grabatu zuten eguaztenean. Gaia euskara izan behar zela erabaki zuten; hala, gai horren gaineko abestia aukeratzea izan zen gaztetxoen eta begiraleen lana.

"Samur erabaki dugu: Hemendik At! taldearen *Jaso dezagun euskara* abestiarekin egingo dugu *lip dub*-a", azaldu zuten begiraleek. Parkean grabatu zuten ikus-entzunezkoa Hemendik At! talde nafarraren doinuekin. Parkean hasi zuten ibilbidea eta handik eskolara igo ziren eskaileretatik; txirristan jaitsi eta parkean amaitu zuten ibilbidea denak elkarrekin dantzan.


Grabaketa egiten 3, 4 eta 5 urteko umeekin. | ARANTZAZU EZKIBEL

**Azken jaian erakutsiko dute**

Martitzenean, hilaren 21ean, egingo duten azken jaian erakutsiko dute *lip dub*-a. Plazan izango da emanaldia.

Udalekuetako arduradun Ana Muñoa pozik dago aurtengo ekintzek izan duten harrerarekin: "Eguraldia lagun izan dugu eta ekintza guztiak aurrera atera ditugu inolako eragozpenik gabe", azaldu du. Astelehenean eta martitzenean igerilekura joan ziren gaztetxoak; eta atzo, Euskararen Eguna ospatu zuten Duranan. Gaur, 5 eta 6 urtekoek ur eta zikin eguna ospatuko dute, eta, horrez gain, erreka garbituko dute. Astelehenean, herri kirolen eguna izango dute; kirol festa eta joko kooperatiboak egingo dituzte; eta baita *Altxorraren bila* eta bizikleta irteera ere.


Abestiaren amaieran, denak parkean elkartu ziren. | A.E.

## Musikaz gozatu dute eguneko zentroan


KARMELE BARRUTIA

Eguneko zentroan musika emanaldia izan zuten atzo arratsaldean. Nagusilan elkarteko Jose Ignazio Murua eta Roberto Alvarez bikoteak eskaini zuen saioa. Emanaldia aprobetxatu zuten erabiltzaileen senitartekoak gonbidatzeko, eta baita Udaleko ordezkariak ere. Emanaldiaren ondoren luntxa izan zuten.


Zalgoko hilerriko egoera ere salatu du EAJk . | ARAMAIOKO EAJ

## Amuarrainak hilda agertu dira azkeneko asteetan errekan

**A.E.** | ARAMAIO

Uztaileko bigarren astean 32 amuarrain hilda agertu ziren Aramaio errekan. Gertatutakoaren aurrean, Aramaioko EAJk ohar bidez "kezka" azaldu du, eta, bide batez, Udal Gobernuko Ingurumen zinegotziari hainbat galdera egin dizkio. "EAJk dituen datuen arabera, uztailaren 6an bitsa edo aparra erabili zuen ume-jarduera bat antolatu zuen Udalak. Garbiketa lanak egiteko orduan, aparra jaso zuen ura errekara bota zuten. Horren ondorioz, hurrengo egunetan hainbat eta hainbat ezkailu eta amuarrain agertu zen hilda Aramaio errekan", dio Aramaioko EAJk ohar bidez. Beste kezka bat ere agertu dute: parkeen eta berdeguneen "egoera eskasa", batez ere Zalgoko hilerriarena.

**Udal Gobernuaren erantzuna**

Udal Gobernuak dio errekaren ardura Eusko Jaurlaritzarena den Ur Agentziarena eta Foru Aldundiarena dela. Hala ere, hildako arrainen gainean galdetuta hau azaldu dute: "Guk ditugun datuen arabera, bero handiaren eraginez oxigeno falta izan dute arrainek eta horregatik hil dira". Gaineratu dute: "Uztailaren 4ko eta 5eko aste bukaeran, Urretxun eta Oñatin ere arrainak hilda agertu ziren. Aurreko eguenean –uztailak 2– bero gogorra egin zuen eta hori da arrainak hiltzearen arrazoietako bat", diote. Azaldu dute bero handiak oxigeno falta eragiten duela uretan; hala, "hil diren arrainak arrain handiak dira, oxigeno asko behar dutenak".

**Ur Agentziaren informea**

Ur Agentziaren informeak dio: "Erreken ur-emari txikia eta tenperatura handiak kontuan hartuta, edozein isurik eragin zuzena izan dezake arrainengan. Ezaugarri horiek kontuan hartuta ondoriozta daiteke garbiketaren ondorioz isuritakoak eragin zuela arrainen heriotza, errekak muturreko baldintzak dituelako". Parkeen egoeraren gainean, Udal Gobernuak dio sasi-garbitzeko makina pasatzen dabiltzala.

"Udalari arraroa egiten zaio Aramaiok dituen ingurumen arazoak –AHTko lanek eragindakoak, adibidez– kontuan hartuta EAJk gertakari honekin azaldu duen kezka", diote.

## Landa eremuetan eta baso publiko eta pribatuetan sua egitea debekatuta dago foru aginduz

Ekainaren 29ko foru aginduaren arabera sua egitea debekatuta dago Arabako Lurralde Historikoko ondoko lekuetan: landa eremuan, baso publiko zein pribatuan, parke naturaletan, aisialdirako parkeetan –Andramarin eta Marixekan prestatuta dauden tokietan izan ezik– eta errepideetako atseden-guneetan. Sua egitea 1.000 euroko isunarekin, gehienez, zigortuko dute.

## Santa Marina jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Arexolan, eta bertso afaria egingo dute gaur, barikua

Gaur, barikua, Arexolako Santa Marina jaien barruan bertso afaria egingo dute: Arexolako elkartean izango da, 21:00etan, Uxue Alberdi eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Bihar, zapatua, meza esango dute, 12:00etan, eta ondoren bizikleta lasterketa herritik auzora. Arratsaldean mus eta briska jokoak eta gauean dantzaldia. Domekan, meza izango dute eta ondoren kantuan ibiliko dira Arantzazu trikiti-jotzailearekin.

**ZUZENKETA**

Joan zen astean Aramaioko orrian argitaratutako udal batzordeen gaineko albistean akats bat zegoen. Aurrerantzean Udal Gobernuak bost batzorde izango dituela esan genuen, baina hori ez da zuzena: zazpi batzorde izango ditu. Falta diren bi batzordeak dira: Euskara eta Hezkuntza, eta Ogasuna, Antolaketa eta Funtzionamendua. Lierni Altuna izango da bi batzorde horien burua.

ELGETA

# Zazpi udal batzorde elkartu dira asteon, agintaldi hasierakoak izan dira

Astelehenerako deitu dute baserritarren eta tokiko garapenerako batzordea

**L.Z.** | ELGETA

Hamabi udal batzorde eratu ditu Elgetako EH Bilduk agintaldirako, eta zazpi elkartu dira asteon: Hirigintza eta Etxebizitza, Ogasuna eta Pertsonala, Ongizatea eta Edadetuak, Turismoa, Jaiak, Hezkuntza, eta Kirola. Hainbat gai izan dituzte mahai gainean; besteak beste, Udalaren harrera protokoloa, 2015-2016 urteko kirol zerbitzuetako eskaintza, jaien balorazioa, hondakinen kudeaketa eta kontratazio berriak.

Batzorde horietan herritarren parte-hartzea handitu gura dute udal arduradun berriek; irekiak dira guztiak. Astelehenerako, hilak 20, deitu dute baserritarren eta tokiko garapenerako batzordea, 21:00etan, udaletxean.

**Herritarren balorazioak**

Jaien gaineko balorazioa egiteko egin zen moduan, Udalak galdetegi bat banatu du etxez etxe herritarrek kirol zerbitzuen gainean duten iritzia jasotzeko. Erabiltzaileak izan direnei eta izan ez direnei egin dizkiete galderak. Eskatu dute galdetegia uztailaren 22a baino lehen udaletxean entregatzeko. Hain zuzen, udaletxean eta *Elgeta.eus* udal atarian dago eskuragarri.

**Garbitzaileen lan-poltsa**

Udalak, bestetik, astebete luzatu du garbitzaileen lan-poltsa osatzeko izen-emate epea. Interesatuek uztailaren 27ra arte dute izena emateko.



L.Z.

## Ur putzuetan fresko-fresko!

Aurten ere ur-putzuak izan dituzte Elgetako neska-mutikoek kiroldegiko kantxan. Hiru egunez ipini ditu Udalak, sorosle eta guzti, eta primeran etorri dira asteon izan den beroteari aurre egiteko. Goizez udalekuetako neska-mutikoek erabili dituzte eta arratsaldez, nahi izan duen orok. Esan gabe doa harrera bikaina izan dutela!



ALIZIA GARTZIA

## Argazki onena, Alizia Gartziak

Txintxon buruhandiari Kataiko arku parean ateratako argazki horrek irabazi du 2015eko Ferixa Nagusiko argazki lehiaketa. Alizia Gartziarena da argazkia, eta hark jaso du saria: Sony DSC-W830 argazki kamera digitala. Bost parte-hartzaile izan dira lehiaketan. "Lehia estua izan da, maila ederra erakutsi baitute guztiek", jakinarazi dute antolatzaileek.

## Domekan mendi irteera Leungana tontorrera

**L.Z.** | ELGETA

Bost bat orduko mendi txangoa proposatzen du Kantsatzeke mendi taldeak etziko, uztailak 19. Urkiolan emango diote hasiera ibilbideari eta Mañarin amaituko dute Leungana tontorretik igarota (1.008 metro). Taldea 08:00etan abiatuko da herriko plazatik. Argibide gehiagorako: *kantsatzeke@gmail.com*.

## Egin dute San Roke kaleko jaietako zozketa

**L.Z.** | ELGETA

Abuztuaren 16an ospatuko dute San Roke eguna Elgetako San Roke kaleko auzotarrek. Jai batzordeak domekan egin zuen festak aurrera ateratzeko zozketa. Zenbaki sarituak dira: 2.000, 1.788, 1.391, 1.033, 1.071 eta 233. Sarituek hamabost eguneko epea dute sariak jasotzeko. Epe horretan sariren bat banatu barik gelditzen bada, dagokion ordezko zenbaki sarituari egokituko zaio. Ordezko zenbaki sarituak dira: 1.794, 1.697, 1.573, 1.217, 771 eta 135.

## Emakumeen IV. Mundu Martxa dela-eta ekintza iragarri dute Elgetan irailaren 20rako

Urriaren 2an pasako da Bergaratik Emakumeen Mundu Martxa, eta Elgetan ere hasita dituzte prestaketa lanak. Lehen batzarra egin ostean, talde eragileak ekintza iragarri du irailaren 20rako. Espainiako gerran ibilitako emakume guztien omenezko ekintza izango da. Oporretatik bueltan egingo dute hurrengo batzarra.

TXALOAK ETA TXISTUAK




GOIENA

## "Pena da, oraindik ere horrela!"

Irakurle batek Domingo Iturbe kaleko hondakin gunean ateratako argazkia bidali digu. Haserre idatzi digu, zaborra edukiontzietatik kanpo eta edozelan botata ikusi duelako. "Ez da ba hain zaila gauzak ondo egitea. Ez sailkatzeaz gain, gainerakoei traban utzi digute zaborra. Zorionez, gutxiengoa dira!".

LEINTZ GATZAGA

# Dagoeneko martxan da Gatz Museoaren webgunea

**ANDER LARRAÑAGA** | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Gatz Museoak pauso bat eman eta Interneten lekutxo bat dauka orain; webgune berria *(www.gatzmuseoa.com)* jarri zuten martxan pasa den astean eta museoaren Twitter zein Facebook kontuak ere ireki dituzte.

Helburu jakin batekin ireki dute webgunea: turismoa erakartzea. Nahiz eta hasiera baino ez den, aurrerapauso gehiago eman gura ditu Udalak herriko turismoa indartzeko. "Turismo aldetik, herrian zer dugun erakustea oso garrantzitsua da. Inguruko jatetxeekin bildu gara alor honi bultzadatxoa emateko zer egin dezakegun baloratzeko; izan ere, museoak, Gatzagara soilik barik, bailara osora erakar dezake jendea" esan du Eneka Zankada alkateak.

**Gatz-aro berria**

"Herriarekin elkarlanean eta inguruko baliabide turistikoak erabilita sare bat sortzea da helburua; horrek gatz-aro berria ekarriko du. Batetik, gatzaren produkzioari ekingo diogu 40 urteren ostean, eta bestetik, bisita gidatuekin ziztada bat emango diogu turismoari; eta lehen pausoa webgunea izan da" azaldu du Gatz Museoko Aitor Larrañaga arduradunak.



## Bukatu dute aparkaleku berria

ANDER LARRAÑAGA

Azkeneko asteetan lanean ibili dira aparkaleku berria egiten eta dagoeneko lehenengo fasea amaitu dute: aparka daiteke. 2016an urbanizazio faseari ekingo diote, diru laguntza bat jasotakoan.

**Oihana Alonso, Irati Lazkano eta Melani Concepcion** | Eibar futbol taldeko jokalariak

# "Futbol klubetan gizonezkoen taldeek izaten dute preferentzia handiagoa"

- Debagoieneko harrobiak emandako bost jokalari dabiltza Eibarren
- Kategoriaz igo berri dira eta bigarren mailan lehiatuko dira

XABIER URZELAI | ARRASATE

Eibar futbol kluba zorioneko dago. Gizonezkoen taldeak Lehenengo Mailan jarraituko duela berretsi dute erabaki horiek hartzen dituztenek, eta emakumezkoen taldea kategoriaz igo da, Bigarren Mailara. Bada, azken horien lorpenean zerikusi handia izan dute Debagoieneko harrobiak emandako bost jokalarik: Ainhoa Alonsok (Bergara, 1989), Maddi Txintxurretak (Bergara, 1995), Melani Concepcionek (Arrasate, 1996), Irati Lazkanok (Bergara, 1998) eta Ane Egañak (Oñati, 1994).

**Oporretan zaudete ala uztaila entrenatzeko aprobetxatzen duzue?**

Ainhoa Alonso: Ez, oporretan gaude, nahiz eta entrenamendu saio bat egingo dugun uztailean, entrenatzaile eta jokalari berriak ezagutzeko. Ondoren, oporrak hartuko ditugu ostera, eta abuztuaren erdialdean lanean hasiko gara, irail hasieran hasiko dugu-eta liga.

**Zelako urtea izan da? Emaitza aldetik ona, bistakoa da.**

Irati Lazkano: Bai, urte ona izan da, eta igoera lortu izanak sekulako poztasuna eman digu. Berez, denboraldia ez genuen helburu horrekin hasi, baina ederra izan da kategoriaz igotzea.

**Baina urtea luzea egiten da, eta denbolariko momentuak izaten dira.**

Melani Concepcion: Bai, urte gogorra ere izan da, hemen ez da ezer erraz lortzen. Taldean jokalari batzuk ikasleak dira, beste batzuek lanean dihardute, eta lana amaitu eta euripean entrenatu, beroaz entrenatu... gogorra egiten da.

I.L: Talde barruan adin askotariko jendea dugu. Neu naiz gazteena, eta batxilergoa amaitzen nabil, baina unibertsitatean dagoen jendea dago taldean, edo lanean dabilena. Eta guztion ordutegiak bateratzea ez da izaten batere erraza. Horrek konpromiso handia eskatzen du, baina horretan ere talde ona izango dugu aurten.



Eibar taldeko hamaikakoa, aurtengo denboraldiko partidu baten atarian. | RAMON BEITIA

**Datorren denboraldian Bigarren Mailan izango zarete. Alde handia dago?**

A.A: Bai; Ohorezko Mailatik Bigarren Mailara salto handia dago, bai. Baina kategoriari eusteko moduko taldea daukagula uste dut, gutako batzuk dagoeneko egon gara kategoria horretan, badugu esperientzia eta taldera etorriko diren jokalari berriek ere ekarpen ona egingo dute, seguru.

**Atzera egiten badugu, Eibarko emakumezkook ia zerotik hasi behar izan duzue ostera ere.**

A.A: Bai; Eibar maila gorenean egon zen duela urte batzuk [Superligan]. Kanpoko jokalariekin egindako taldea zen orduko Eibar, baina hainbat arrazoirengatik jokalari horiek taldea utzi zuten, eta kategoria asko galdu ziren. Guk ostera ere poliki-poliki egin dugu gora, eta pozgarria da ikustea atzetik beste kategoria batzuk ere baditugula, territorialekoak, edo maila txikiagokoak, kadeteak, infantilak... Azken baten, goiko mailetan talde egonkorra izateko ezinbestekoa da klubak beheko kategoriengatik ere apustu egitea. Atzetik inor ez badator, goiko talde hori berehala desagertzen da.

**Debagoienean sarritan ikusi dugu klub bateko emakumezkoen lehenengo taldea desagertzen. Eta gizonezkoen taldeaz ez da halakorik gertatzen.**

A.A: Nik uste dut gizonezkoek futbolean beste motibazio bat izaten dutela, lehenengo taldera iristea. Eta horrekin batera beste abantaila edo sari batzuk ere izaten dituzte zuzendaritzen partetik. Hala, gizonezkoen taldeek lehentasuna izaten dute. Horrekin batera, egia da kategoria txikietan errazago bilatuko ditugula mutikoak futbolean jokatzeko gertu daudenak neskak baino. Hala, mutikoen artean aukeraketa egin behar izaten dute, denendako tokirik ez delako egoten, eta nesken talde bat ateratzeko, berriz, jende falta egoten da. Zorionez, hori aldatzen dabilela uste dut, eta geroago eta neska gehiago daude futbolean jokatzeko gogoz.

M.C: Gutako askok batera eta bestera ibili behar izan dugu, futbolean jokatzen jarraitu gura genuelako. Mondran ibilitakoa naiz ni, Gasteizera joan nintzen gero, ondoren Eibarrera... Eta denok ibili gara berdin, batera eta bestera. Kirol hau gustuko dugulako egiten dugu esfortzua.

**Gizonezkoekin egitea zaila da, baina emakumezkoen futbola indartzeko lagunduko luke bailarako taldeak batzea?**

A.A: [Barre] Ba, ez dakit ze punturaino izango litzatekeen posible. Akaso, klub guztiak batzea gaitza izango litzateke, baina ondoan dauden herrietako taldeak batzea, esaterako, Aretxabaleta eta Mondra... zergatik ez?

**Gabonetan Arizmendik antolatzen duen torneoan bailarako selekzioa egiten duzue, eta, gainera, aukera izaten da Realaren eta Athleticen kontra jokatzeko.**

I.L: Gauza ederra izaten da, ekimen polita. Baina egun bakarra motz geratzen da.

**Harrobiko jokalariendako garrantzitsua da Gipuzkoan Reala moduko erreferentzia-talde bat izatea. Eta, zorionez, emakumezkoetan ere baditugu talde erreferenteak; Reala, esaterako.**

A.A: Lehenengo Mailan Reala eta Athletic ditugu, baina, akaso, Debagoienetik urrun samar dauden klubak dira. Eta uste dut bailarako neskendako Eibar oso erreferente ona izan daitekeela, gertu dagoelako, gainera.

**Posible ikusten duzue Eibarrekin, ostera ere, maila gorenera iristea?**

I.L: Oso zaila da, Bigarren Mailara igo berri gara eta ikusteko dago datorren urtean ze maila emango dugun kategoria berrian. Baina, zergatik ez? Bistan dago gauzak oso ondo egin behar direla goraino iristeko, baina posible da.


Ezkerretik hasita Irati Lazkano, Oihana Alonso eta Melani Concepcion. | X.U.

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA
09:00-14:00 Seber Altube Plaza
HILEKO 3. ZAPATUAN
2015
uztailak 18
irailak 19
urriak 17
azaroak 21
Antolatzailea: Arrasateko Udala / Ayuntamiento de Mondragón — Enplegu eta Garapen Ekonomikoaren Saila
Laguntzailea: ibai-arte — Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





2014an txirrindulariak parte hartzen. | IMANOL SORIANO

# Kantoikrit probak orain arteko parte-hartze handiena izango du

## Iaz baino hiru bira gehiago izango ditu lasterketak

JOSU BILBAO | OÑATI

Pinoi finkoko bizikletekin egiten den lasterketaren laugarren edizioa jokatuko da bihar, 22:00etan. Aurtengo probaren berezitasun nagusia distantzia izango da. Txirrindulariek iaz baino hiru buelta gehiago eman beharko dituzte, hamasei bira, guztira, 24 kilometroko ibilbidea osatzeko: "Iazko zirkuitu bera izango da. Berritasuna aurten hiru bira gehiago eman beharko dituztela izango da", azpimarratu du Antxon Zubia antolakuntzako kideak.

Kriterium berezia da Oñatin jokatzen den Kantoikrit proba, eta antolatzaileek jendea lasterketa ikustera animatzeko gonbita egin dute: "Jendea animatzea, bai noski. Gauez, herri barrutik, harbidean... beste kriterium batzuekin alderatuta ezberdina da hau. Ez dago herri barruan egiten denik, eta gutxiago harbidean. Horrek ikusmina sortzen du", azaldu du Zubiak.

**Nazioarteko txirrindulariak**

Iaz nazioarteko parte hartzea izan zen, eta aurten ere atzerriko txirrindulariek izena eman dute: "Italiarrek, frantsesek eta espainiarrek izena eman dute jada. Guztira, berrogei inguru daude apuntatuta eta oraindik gehiagok izena ematea espero dugu. Aurreko astean lasterketa bat izan zen Londresen, eta azken orduan jende gehiago apuntatzea espero dugu. Zaila izango da 60 txirrindularira heltzea, baina jada aurreko urtea baino gehiago daude, beraz pozik gaude", dio Antxon Zubiak.

Iazko garaileak, Timothe Ceresa frantziarrak, erorikoa izan zuen Londresko proban, eta azken ordura arte ez da jakingo proban izango den edo ez.

Oñatitik Joseba Albizuk, Iñigo Mugartzak, Roberto Zugaztik eta Iñigo Agirianok parte hartuko dute, eta Beñat Luarizarizti bergararra ere lehian arituko da.

**Eguraldiaren zain**

2014ko lasterketan euria protagonistetako bat izan zen, eta zorua, eta harbidea batez ere, arriskutsu egon ziren. Biharko ez dago euririk aurreikusita, baina antolatzaileak zerura begira egongo direla azpimarratu du Zubiak: "Proba jokatuko den ordurako ez dute euririk ematen, baina lainoak egon daitezke, eta adi egon beharko dugu. Aurten, gainera, bi anbulantzia hartu ditugu; beraz, lasterketa ez da erorketekin gelditiko".

## 90 txirrindulari inguru Arantzazuko 46. Igoeran zapatuan

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak Arantzazuko 46. igoera antolatu du biharko. Lasterketa gazte mailakoa izango da, eta parte hartuko duten 90 bat txirrindulariak 16:30ean abiatuko dira Portalekutik. Helmuga Sindika hotelaren ondoan egongo da.

## Mikel Muxika eta Mikel Ugarte, Euskal Selekzioarekin Sorian

Antxintxika Triatloi Taldeko Mikel Muxikak eta Mikel Ugartek Espainiako autonomien arteko txapelketa jokatuko dute asteburu honetan. Proba Almazanen izango da eta hamabi neska-mutil joango dira Euskal Selekzioarekin.

## Kuadrillen arteko txapelketa Ibarra futbol zelaian

Bihar jokatuko da UDAk antolatu duen Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa. Lehenengo sailkatuak 600 euro irabaziko ditu, bigarrenak 300 eta hirugarrenak 100. Jatekoa, edatekoa, musika eta sari bereziak egongo dira.

ALMACENES ARRASATE

RENOVE PLANA 2015

Electrolux — 2 urte bermea — A++ — 2000 x 595 x 595 — HOZKAILUA EN-3854NOX — 599 -105 494 €

Whirlpool — 2 urte bermea — A++ — 1880 x 600 x 650 — Fruta eta barazki ekologikoen kaxa hau DOAN — HOZKAILUA BSNF-8152OX — 595 -105 490 €

ZANUSSI — 2 urte bermea — A++ — 1850 x 600 x 650 — HOZKAILUA ZRB-34315WA — 475 -105 370 €

SIEMENS — A+++ — 2 urte bermea — 1200 b/min 8 Kg — GARBIGAILUA WM-12Q48XES — 550 -125 425 €

FAGOR — A+++ — 5 urte bermea — 1200 b/min 8 Kg — GARBIGAILUA F-8212 — 410 -125 285 €

AEG — A+++ — 2 urte bermea — 1200 b/min 8 Kg — GARBIGAILUA L-68280 FL — 399 -125 274 €

FAGOR — A+++ — 5 urte bermea — 1200 b/min 7 Kg — GARBIGAILUA F-7212 — 375 -125 250 €

ZANUSSI — A+++ — 2 urte bermea — 1200 b/min 7 Kg — GARBIGAILUA ZWF-71250W — 299 -125 174 €

FAGOR — A++ — 5 urte bermea — ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13 — 375 -105 270 €

FAGOR — A++ — 5 urte bermea — ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13X — 425 -105 320 €

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

| Diruz lagundutako etxetresna elektrikoak | Diru laguntza (€/makinako) eficientzia energetikoaren arabera | |
|---|---|---|
| | A+++ | A++ |
| Hozkailua eta izozkailu-hozkailua | 125 | 105 |
| Izozkailua | 125 | 105 |
| Garbigailua | 125 | 105 |
| Ontzi-garbigailua | 125 | 105 |

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13 Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

# Belakoren post-punka eta La-Tox taldearen elektronika

▸ Gaztemaniak kontzertua gaur, egubakoitza, Monterron parkean, doan

▸ Mungiarrek Euskal Herrian egingo duten kontzertu bakarrenetakoa da

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE
Musika adituen kritika onak eta jarraitzaile askoren fideltasun handia lortu ditu 2011n sortutako Belako taldeak. EITBko maketa lehiaketa irabazi zuten 2012an; harrezkero, abiadura handiko ibilbidea izan du herriko auzo baten izena duen Mungiako laukoteak. Josu eta Lore Billelabeitia anai-arrebek, Cris Lizarragak eta Lander Zalakainek osatzen dute taldea.

Uda honetan ere agenda beteta duten arren, bi kontzertu bakarrik egingo dituzte Euskal Herrian, eta horietako bat da gaur, egubakoitza, 22:30ean, Monterron parkean Bergarako La-Tox taldearekin batera egingo dutena –euria bada, gaztetxean.

ESANAK

**"Indartsua da gure zuzenekoa: buzkantz ogitarteko eta polboroi nahasketa bestekoa"**

JOSU BILLELABEITIA | BELAKO

**Musika estilo askoren batura**
Ez da samurra Belakoren musika estilo bakarrean finkatzea; adituen esanetan, itxura baten, kantu sinpleak dira, baina, aldi berean, borobilak eta intentsitatez beteak, eta melodia hipnotikoak eta gitarra kolpe bortitzak dituztenak. "Post-punketik asko dugu hasieratik; geroago, grungearen eragin nabarmena ere izan dugu. Elektronika ere gustuko dugu eta house teklatuak ere sartzen ditugu. Estilo askoren batura da egiten duguna, betidanik izan da, baina nahiko iluna", azaldu du Josu Billelabeitiak, taldeko gitarra-jotzaileak.


Mungiako Belako laukotea Monterron parkean izango da gaur. | BELAKO

Euskarazko kantuak dituzte, baina ingelesez abesten dute, gehienbat: "Talde ingelesekin hazitakoak gara, gurasoen eragina izan da hori, The Smiths, The Clash... Gure estiloan ingelesez hobeto geratzen den ustea dago, baina euskaraz abesten ere saiatzen gara, hori da-eta gure eguneroko hizkuntza. Loreren eta bion aitak aspaldi esan zigun disko baten, gutxienez, %20 euskaraz izan behar dela, eta agindutakoa betetzen saiatzen gara".

**Udazkenerako lan berria**
2013an argitaratu zuten *Eurie* lehenengo lan luzea. *"Tuti-fruti* disko bat da: hasierako kantak eta estudioan egindakoak daude. Nerabezaro garaiko diskoa izan zen, freskotasun eta bat-bateko handikoa". Iaz uztailean, autoekoitzitako bi EP –disko laburargitaratu zituzten: *Bele beltzak baino ez* eta *AAAA!!!* "Guretzako aurrerapauso nabaria izan zen guk ekoiztea. *Belakoagoa* da emaitza. Oso ezberdinak dira: esperimentalagoa, konposizio konplexuagoak ditu lehenengoak eta *maketeroagoa*, gordinagoa, da bigarrena. *Eurie* laneko kantak sinpleagoak ziren, eta beste bietan, ostera, kurba gehiago daude, landuagoa da. Bide horretatik jarraitu nahi dugu hurrengo lanean. Lagun batek utzi digun Nafarroako baserri batera joango gara, abuztuan, bozetoa izango dena grabatzera".

**Bergarako La-Tox ere bai**
Foru Aldundiaren Gaztemaniak programaren eskutik dator gaurko proposamena. Bergarako La-Tox taldearen doinu elektroniko eta experimental ilunek zabalduko dute emanaldia.


Gabacho Maroconnection taldeak zuzeneko ikusgarria egiten du. | BERGARAKO UDALA

# Gabacho Maroconnection: musika afrikarraren eta jazzaren arteko fusioa

Herrialde eta kultura askotariko eskarmentu handiko zortzi musikariren eskutik, musika bidaia proposamena Berumugan gaur, egubakoitza

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA
Jazz musikaz dohainik gozatzeko beste aukera bat izango da gaur, egubakoitza, Espoloian egiten den Bergarako jaialdian, 22:00etan. Frantzian eta Espainian bizi diren zortzi musikarik osatzen duten Gabacho Maroconnection taldea izango da aurtengo Berumuga jaialdiko hirugarren gonbidatua.

Hainbat bidaia egin ostean, El Jadidan (Maroko) sortu zuen 2012an Vincent Thomasek. "Gertutik ezagutu nuen musika marokoarra Europako hainbat musikarirekin nahastea, fusionatzea, pentsatu nuen. Aurrez genuen Gabacho Connection jazz taldea eta izen berriarekin bataiatuta jaio zen honako proiektu hau".

**Zortzikotea taularen gainean**
Marokoko eta Afrikako beste herrialde batzuetako musika tresna tradizionalak, perkusioa, metalak, teklatuak, baxua, bateria... doinu horien guztien gainean abestuko du Hamid Moumen maisuak.

Iturri askotatik edaten duten zortzi artistek –horien artean da domekan Arrasaten izan zen eta abuztuan Bergaran kontzertua egingo duen Antonio Lizana flamenko-jazz musikaria– musika bidaia paregabea proposatuko diete kiosko ezagunera hurbiltzen diren zaleei, jazzaren mantapean, muga guztiak gainditzeko bidea emanda. "Gure emanaldiak jarrita entzuteko modukoak dira, baina atseden hartuta etortzeko proposatuko nizueke, esango nuke-eta bat baino gehiago dantzan egitera animatuko dugula. Festa marokoar alai bilakatzen dira gure kontzertuak", gaineratu du Thomasek.

ESANAK

**"Marokoko festa alaiak izaten dira gure emanaldiak"**

VINCENT THOMAS | MUSIKARIA

**Iaz, 30 jaialditatik gora**
Debagoienean lehenekoz joko dute gaur, baina aurreko astean gertu izan ziren: Elorrioko Musikaire jaialdian, hain zuzen ere. Abuztuaren 23an Bidasoako Folk jaialdian izango dira Gabacho Maroconnectioneko lagunak eta hurrengo egunean, berriz, Bilboko jaietan.

# Euskal zinema industriaren indarguneak eta ahulguneak

**A. A** | OÑATI
*Euskarazko zinemaren produkzioa eta finantziazioa: hamaika film luzeren azterketa ekonomikoa* tesia aurkeztu du Oñatiko Miren Manias EHUko ikerlariak; azken lau urteetan egindako lanaren emaitza da.

**Egoki saltzen ikasi beharra**
Ikerlariaren esanetan, euskal zinema industria badago; horren erakusle da 2005-2012 urte bitartean –aztertu duen garaia da hori– hamabost film luze egin zirela. Kalitatezko baliabide artistikoak eta teknikoak dauden arren, filmen banaketa eta erakusketa indartzeko beharra ikusten du, eta horretarako promozio estrategia komuna diseinatu beharra dagoela, hemen egindako lana balioan jartzen lagunduko lukeena. Era berean, azken urteotan hainbat hitzarmen, ekimen eta sustapen programa sortu diren arren, inbertsio pribatu ahula ere sustatu beharra dagoela gaineratu du.

# Glaukoma taldearen kontzertua zapatuan Errekan Gora jaialdian

## Disko berrian lanean hasi aurretik azken kontzertua izango da

MAITE TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Hirugarren asteburua du jada aurtengo Errekan Gora jaialdiak Eskoriatzan. Glaukoma taldeak kontzertua emango du, 22:30ean, Gernika plazan. Donostia eta Tolosaldeko kideez osatuta dago: Juantxo Arakama, Iker Pando, Jokin Albisua, Asier Arandia eta Pablo Rubio.

Bateria, baxua, bi gitarra eta ahotsa erabiltzen dituzten arren, ez da rock talde bat. Izan ere, Glaukomatarrek rap-reggae estiloa jorratzen dute. Tolosako Bonberenea gaztetxe ezagunean du jatorria taldeak, eta hiru urteko ibilbidea darama. Denbora honetan zehar lortutako arrakastak Japoniaraino eraman ditu, eta, adibidez, Toots and the Maytals talde handiarekin *telonero* aritu izan dira.



Glaukoma boskotea. | BONBERENEA EKINTZAK

### Disko berria

Uda honetan hiru kontzertu soilik eskainiko dituztela azaldu dute Glaukomakoek. Markinan eman zuten bat eta Iruñeko sanferminetan beste bat. Eskoriatzakoa, beraz, azkenengoa izango da. Horren ondoren, atsedenalditxoa hartuko dute; izan ere, taldekoek azaldu dutenez, "disko berriarekin lanean" hasiko dira aurki, haien hirugarrena izango dena. Aurretik, *Vol. I.* (2012) eta *Vol. II.* (2013) kaleratu dituzte, *disko beltza* eta *disko txuria* izenez ezagunagoak.
Uda pasatutakoan, berriz, Bad Sound System taldearekin batera single bat grabatuko dutela aurreratu dute, eta hura aurkezteko zenbait kontzertu emango dituzte elkarrekin. Gainontzean, baina, talde moduan ez dute, hasiera baten, emanaldirik eskainiko disko berria bukatu arte.

### Azken orduko aldaketa

Errekan Gora jaialdiaren egitarauan datorren zapaturako Fermin Balentzia bakarlariaren kontzertua iragarrita bazegoen ere, azken orduko aldaketa bat izan da. Osaun arazoak direla medio, abeslari nafarra ezin izango da Eskoriatzan izan, eta, haren partez, Xabi Solanok eta DJ Dz-k jarriko dute giroa.

Esne Beltza taldeko abeslaria eta liderra izateagatik da ezaguna Solano. DJ Dz edo Zigor Lampre, aldiz, talde berarekin DJ lanetan aritzen da.

Honako hau ez da, baina, datorren asteburuko kontzertu bakarra izango. Lehenago, egubakoitzean, Kalakan hirukotearen emanaldia izango da Santa Marina plazan, hori ere 22:30ean.

### Jarraitzeko asmoz

Bi kontzertu horiekin esango du agur aurtengo Errekan Gora jaialdiak. Aurreko bi asteburuetan 4kotegehi7 eta Arozenatarrak taldeen kontzertuak ikusi ahal izan dituzte eskoriatzarrek zein kanpokoek.

Atxorrotx kultura elkarteak eta Eskoriatzako Udalak elkarlanean antolatutako ekimen horrek zortzigarren edizioa du jada. Datorren urtean eta hemendik aurrera ere egitasmoarekin jarraitzeko "ilusioz" daudela azaldu dute antolatzaileek. "Herrian errotuta dagoen" jaialdia da Errekan Gora, Beñat Hercek, orduko jarduneko alkateak, aurkezpenean adierazi zuenez.

# Indonesiako folklorea ezagutzeko aukera uztailaren 23an Bergaran

M. T. | BERGARA

Jakartako unibertsitateko Ensemble Krida Budaya musika eta dantza taldeak emanaldia eskainiko du hilaren 23an, eguena, Munibeko plazan –euria eginez gero, Seminarioko karpara aldatuko da hitzordua–, arratsaldeko zazpietan.

27 pertsonak osatzen dute taldea, eta Indonesiako txoko askotariko tradizioak irudikatuko dituzte haien dantza mugimenduen bitartez.

### Jantziak eta instrumentuak

Horretarako erabiliko dituzten jantziak askotarikoak izango dira, herrialdeak dituen 14.000 irla eta irlatxoetan zehar dagoen paisaia zein ohitura aniztasunaren erakusgarri.
Musika instrumentuei dagokienez, perkusioak garrantzi handia izango du emanaldian. Sumatrako danborrak, xilofonoak, *Darbouka* izeneko kopa itxurako danborrak... herrialdeko instrumentu tradizionalak guztiak. Horretaz gain, txirulak, gitarrak eta akordeoiak ere erabiliko dituzte.

Indonesiarrentzat, musika eta dantza bezalako hainbat espresio artistiko espirituekin komunikatzeko bideak dira.

Indiako kulturaren eta erlijio hinduaren tradizio propioen influentzia ere nabaria da indonesiar folklorean.



Indonesiar dantzak. | WIKIPEDIA

# Ramon Arantzabalen 'Munibeko izar disdirak' performancea gaur ikusgai

## Bergarako Munibe plaza artisten topaleku gisa irudikatuko du margolariak

M. T. | BERGARA

Ramon Arantzabal artista arrasatearrak *Munibeko izar distirak* izeneko performancea egin zuen atzo Bergarako Munibe plazan. Gaur eta bihar ikuskizun bera errepikatuko du, baldin eta eguraldiak uzten badio. Hasiera batean, egubakoitz eta zapatuan saio bana egitea zen haren asmoa, baina, azaldu duenez, "eguraldiaren iragarpena aldatu egin da" eta aurreratu egin behar izan du. "Euriarekin eta lur bustiarekin ezin da egin, margolanak hondatu egingo liratekeelako", dio.

Bi urte baino gehiagoan zehar eskuz margotutako 250 tutu izango dira ikuskizunaren oinarria. Haiekin estruktura bat sortuko du, Bachen, Theodorakisen eta Björken musikaz lagunduta. Ordu eta laurdenez egongo da hura ikusgai Munibe plazan.



Arantzabal, estudioan. | GOIENA

### Hiru keinu

Duela bost urte, toki berean, *Gau magikoak Munibeko plazan* performancea egin zuen artista arrasatearrak, eta arrakasta handia lortu zuen, herritar ugari bertaratu baitziren hura ikusteko asmoz. Bertan, musika, poesia, argiak, dantza eta margolanak uztartzen zituen ikuskizuna eskaini zuen. Oraingo ikuskizuna haren jarraipena dela azaldu du.

Bestalde, Greziako herriari elkartasun keinua egingo dio, Mikis Theodorakisen musikarekin.

Eta, azkenik, Bergarako Stoltz-Freres organoaren laguneI ere erreferentzia egingo die, Bachen *Tocata eta fuga re minorren*-ekin. Organoarekin jotako pieza da.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Ajo (Kantabria).** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Garajea eta igerilekuarekin. Hondartza gertu. Deitu zenbaki honetara: 607 41 14 43

**Arrasate.** Erdialdean apartamentu kapritxosoa ematen da errentan. Berria da. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. 639 17 49 52

**Gasteiz.** Alde zaharrean etxebizitza dotorea ematen da errentan. Bikote batentzako egokia. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin. Hilero 550 euro, komunitateko eta uraren gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 606 91 32 05 edo 626 28 12 88

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi *oskar.carrascal@gmail.com* helbidera

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan erdingunean. Grupo San Juanen, San Andresen edo inguruan. Pertsona bakarrentzat izango litzateke; beraz, etxebizitza txiki batekin nahikoa dut. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez. 618 28 91 28

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 01 05 84

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gizon arduratsu eta ez erretzaileak logela errentan hartu nahiko luke. Presazkoa. 648 00 86 55

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. Hilean 250 euro, gastuak barne. 699 78 87 36

**Arrasate.** Neska errentan hartzeko logela bila. Bertako pertsonekin. 695 73 87 95

**Gipuzkoa.** Bikote batek logela behar du errentan. 666 20 06 03

**Oñati.** Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. 656 74 29 49

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Gazteentzako lokala.** 17 urteko neskak gara eta Arrasaten lokal bila gabiltza. 647 08 97 14 edo 660 01 98 07

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**DENDARIA**
Telefonia dendarako pertsona bat behar dugu, Arrasate eta Azpeitirako.
682 67 02 74

**Arrasate.** Gizon euskalduna behar da asteburuetan pertsona batekin egoteko. Gidabaimena duena, alaia eta hizlaria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 70 23 90

**Bergara.** Pertsona euskalduna behar dugu umeak zaintzeko eta etxean laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 636 10 44 31 edo 943 08 20 42

**Oñati.** Etxeko garbiketa lanak egiteko pertsona euskaldun baten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 14 06 57

### 402. ESKAERAK

**Arrasate edo Aretxabaleta.** 25 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Esperientzia handiarekin eta Haur Hezkuntzako ikasketekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 17 33 61

**Arrasate edo Aretxabaleta.** Etxe, elkarte eta abarren garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile lanak ere. Gainera, pertsona nagusiak eta egoitzatan bizi direnak paseoan ateratzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 84 41 94

**Arrasate, Bergara edo Oñati.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

**Bergara.** Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergaran umeak zaindu.** 25 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut eta haurrekin urte askotako esperientzia. Deitu zenbaki honetara: 680 17 33 61

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**Bergara.** Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten ari naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 61 29 99

**Debagoiena.** Arrasateko familia batekin etxean bertan lanean aritu naizen gizon bat naiz. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, etxean bertan bizitzen, zein orduka. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 25 95 46

**Debagoiena.** Arrasateko emakumea naiz eta garbiketa lanetan, sukaldari laguntzaile eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Lan hauetan eskarmentua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 13 96 46

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 19 38 74

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 19 38 74

**Debagoiena.** Garbiketan, eraikuntzan, margotzen eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 63 38 21

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbiketa egin eta abarretarako. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka. Deitu zenbaki honetara: 688 48 47 76

**Debagoiena.** Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onak dituena, nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 43 08 54

**Debagoiena.** Mutila gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 03 51 84

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzeko gertu nago etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 46 17 94

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan edo antzeko lanetan jardungo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Aranerreka 79 m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Aranerreka 87 m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Aranerreka 90 m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€ NEGOZIAGARRIA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Lizaria, duplexa, 111m², 3 logela. 222.445€ PREZIO JEITSIERA.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekua. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN

**ANGIOZAR:**
- Duplexa 170 m², Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Borda 70 m². Lur sailak, zuhaitzak eta pinudiarekin. Ingurua ondo prestatuta. 90.000€
- Baserria 233m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko permisoarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050 €
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

**Debagoiena.** Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbiketa lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi eta umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 34 74 35

**Debagoiena.** Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi, gaixo edota umeak zaintzeko gertu. Baita orduka ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska gertu gauetan pertsonak zaintzeko edo orduka garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. Interesatuakdaudenak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 645 58 71 61

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: ume eta nagusiak zaindu edo taberna, atari eta abarrak garbitzen. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuakdaudenak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 631 28 22 03

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Esperientziaduna. Interesatuakdaudenak deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 632 85 03 84

**Debagoiena.** Ume eta nagusien zaintzan, tabernan, sukaldean, garbiketan eta abarrean lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 697 20 00 86

**Debagoiena.** Umeak eta nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko gertu nago. Esperientzia dut eta oso langilea naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 10 58 72 (Isabel)

**Emakumea lanerako prest.** Emakume gaztea etxeetan garbiketak egin eta haurrak zein adineko pertsonak zaintzeko prest. Esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 44 92 85

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Irailetik aurrera DBH 4. mailako ikasketekin lagunduko didan norbait behar dut. Batez ere matematikan eta euskaran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 70 58 33

## 7. ANIMALIAK

### 704. BESTELAKOAK

**Podenco Andaluz txakurra.** Bergarako San Martzial auzoan Podenco Andaluz arrazako txakurra agertu zen orain bizpahiru hilabete. Emea da eta marroi argi kolorekoa. Jabeak deitu dezala zenbaki hauetara: 943 76 37 58 edo 608 03 51 93 (Asun)

**Txoria galdu Aretxabaletan.** Txoria, Agaporni espeziekoa, galdu zen ekainaren 22an. Berdea eta laranja da eta 'Hiart' jartzen duen eraztuna dauka eskumako hankan. Otzana da eta jendearekin egoten ohituta dago. Aurkitu edo ikusi baduzu, eskertuko genuke deitzea. 615 78 08 18 (Manu)

## 8. DENETARIK

### 802. EROSI

**Klarinetea.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 650 39 20 87 (Ines)

### 803. EMAN

**Bidaiatzeko sehaska.** Ume txikiendako bidaiatzeko sehaska ematen da opari. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 653 74 24 78

### 804. HARTU

**Bizikleta.** Lau urteko umearendako bizikleta emateko moduan izanez gero, guk gustura hartuko genuke. Interesatuok deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 653 74 24 78

### 806. GALDU

**Telefonoa Aretxabaletan.** Mugikorra galdu dut Aretxabaleta erdialdean. Txikia, txuria eta tapaduna. Aurkitu baduzu deitu, mesedez, zenbaki honetara: 665 70 69 01

### 808. BESTELAKOAK

**Trikitia.** Trikitia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 659 76 08 81

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Shere Moreno Escobar**
Uztailaren 23an, 32 urte. Zorionak eta urte askotarako, amatxo! Egun politxa pasatzia espero dogu. Asko-asko maitte zaittugu. Patxo potolo bat Kenarren eta Alainen partetik.



ARETXABALETA
**Julen Sandoval Antxia**
Uztailaren 22an, 11 urte. Zorionak, Julen! Ondo pasatu zure eguna eta musu handi bat, bereziki Alazneren eta Eiderren partetik.



OÑATI
**Laia Umerez**
Uztailaren 22an, urtebete. Zorionak, txiki-txiki! Zure lehenengo urtetxua. Patxo pila bat familixa danaren partetik! Muxu, *pitufina*.



OÑATI
**Ane Arrizabalaga**
Uztailaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetze egunean eta opari pila eta milioika muxu jaso ditzazula, *guapa*! Maitasun handiz, etxekoen partetik.



OÑATI
**Oier Sanchez Gomez**
Uztailaren 21ean, 6 urte. Zorionak, Oiertxu! Zelako handia zaren! Ondo pasatu zure eguna aitatxoren, amatxoren eta Unairen partetik.



BERGARA
**Laida Akizu Bilbao**
Uztailaren 20an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Egun politxa pasatu zure seigarren urtebetetzian. Segi beti bezain alai eta jaso patxo potoloak danon partetik, Ekainena bereziki. Asko maitte zaittugu!



BERGARA
**Sara Unamuno Andueza**
Uztailaren 20an, 4 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu zure laugarren urtebetetze egunean eta patxo pila bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Josu Dominguez**
Uztailaren 20an, 18 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure hemezortzigarren urtebetetze egunean etxekoen eta, bereziki, Maddiren eta Aimarren partetik.



OÑATI
**Izar Unzurrunzaga**
Uztailaren 20an, zazpi urte. Zorionak familiako guztien partetik, gure txirrindulari aparta! Mila muxu eta izozki zure eguna ospatzeko baina, hala ere, zu guretzat beti goxoago.



ESKORIATZA
**Oinatz Andetxaga Korujo**
Uztailaren 19an, 8 urte. Zorionak, Oinatz! Ondo pasatu zure egunian eta muxu handi bat etxekoen partetik.



BERGARA
**Maren Azkarate**
Uztailaren 19an, 3 urte. Zorionak, Maren! Besarkada handi bat eta patxo pila bat familia guztiaren eta, bereziki, Markelen, aitatxoren, amatxoren, aitita eta amamaren partetik.



BERGARA
**Julen Irizar Galarraga**
Uztailaren 19an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Hamaika! Orain arte bezain jator eta alaia jarraitu izaten. Bikaina zara. Besarkada erraldoi bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
**Salva Rodriguez**
Uztailaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, maitia, eta muxu handi-handi bat! Zuretako bihotz-bihotzez zure mutikotxoaren, emaztearen eta familia osoaren partetik.



ANTZUOLA
**Aiora Legorburu Rodriguez**
Uztailaren 18an, 10 urte. Zorionak, printzesa!



ESKORIATZA
**Iradi Aramendi Altuna**
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak, sorgintxu hori! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolote pila bat Unaxen, aitatxoren eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Ekain Akizu Arenaza**
Uztailaren 18an, urtebete. Zorionak, Ekaintxo! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzia. Etxekuon partetik, mila patxo. Oinatz, Elaia, aitatxo eta amatxo.



BERGARA
**Maialen Arregi Gantxegi**
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, *guapisima*! Bost urtetxo jada! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo handi-handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Miren Aberasturi Galdos**
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Sei tirakada handi. Patxo bat etxeko danon partetik. Mua!



OÑATI
**Amaia eta Miren**
Uztailaren 18an, 6 urte. Zorionak, bikote! Ondo ospatu zuen seigarren urtebetetze eguna! Txokolate eta marrubizko muxutxo pila bat biondako! Mua!



OÑATI
**Amets Zubia**
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak, Amets! Jada bi urtetxo! Eta hori da sasoia! Ondo pasatu zure egunian eta txokolatezko patxuak danon partetik. Asko maitte zaittugu, txapelduna!



ELGETA
**Aner Garcia-Gango**
Uztailaren 17an, urtebetetzea. Muxu handi bat amamaren eta aitxitxaren partetik.



OÑATI
**Gari Zapata Ugarte**
Uztailaren 17an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Aitatxoren, amatxoren eta familia eta lagun danan partetik, oso-oso ondo pasatu eta patxo handi-handi bat.



ARETXABALETA
**Uxue eta Amalur Fernandez Lezeta**
Uztailaren 16an eta 23an, urtebetetzeak. Txarapeako printzesentzat, Aitor Zubiren partetik, zorionak!



LEINTZ GATZAGA
**Garazi Ugarte Zubizarreta**
Uztailaren 16an, 8 urte. Zorionak, Garazi! Etxeko danon partetik, ondo-ondo pasatu, printzesa!



OÑATI
**Amets Robles eta Aiuri Umerez**
Aiurik uztailaren 12an, 7 urte eta bere lehengusu txiki Ametsek uztailaren 16an, urtebete. Zorionak, bikote! Jarraitu hain alaiak eta zoriontsuak izaten! Besarkada handi bat familia danaren eta, batez ere, etxeko beste txikien partetik: Helene, Ekain, Izaro eta Nahia. Mua!



ARETXABALETA
**Oier Portalo Gonzalez**
Uztailaren 15ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Joan prestatzen belarriak! Muxu potolo bat zuretzat! 15ean etxeko guztiok elkartuko gara zure urtebetetzea ospatzeko. Asko maite zaitugu.



OÑATI
**Itsaso Ugarte Erostarbe**
Uztailaren 15ean, 22 urte. Zorionak, Itsaso! Ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo bat etxekuan partetik!



ARRASATE
**Helena Unamuno Errarte**
Uztailaren 15ean, 4 urte. Zorionak, Helena, aitatxoren, amatxoren eta Danelen partetik! Ondo-ondo pasatu zure egunean!



BERGARA
**Maddi Heis Castellano**
Uztailaren 14an, 12 urte. Zorionak, maitia, eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean, etxekoen eta, bereziki, Aimarren eta Josuren partetik.



OÑATI
**Malen Caro Arriaran**
Uztailaren 14an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat zure familikoen partetik.



ARRASATE ETA ESKORIATZA
**Jon Regaño**
Uztailaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Oso ondo pasatu zure egunean eta badakizu, aurten Galiziako saldak eta txurrasko goxua zure kontu! Betikoen partetik.



OÑATI
**Ekain Hernandez Delgado**
Uztailaren 13an, 7 urte. Zorionak, Ekain! Oso ondo pasatu zure egunian! Muxu potolo bat etxekoen partetik. Aitta, ama eta June.



ARETXABALETA
**Ander Eraña Urieta**
Uztailaren 13an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko lau urte gure etxea alaitasunez betetzen! Belarritik lau tirakada eta patxo erraldoi bat, zure familia guztiaren partetik.



ARRASATE
**Uxue Nalda**
Uztailaren 12an, 3 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean eta muxu potolo bat aitatxoren, amatxoren eta Ihabarren partetik. Asko maite zaitugu.



ARETXABALETA
**Haizea Garcia Borrego**
Uztailaren 12an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat, familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Eider Elgero Gantxegi**
Uztailaren 11n, 7 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Asko maitte zaitugu! Etxeko danon partetik.



ARRASATE
**Ander Legina**
Uztailaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Mikelen eta Helenaren partetik.



ARRASATE
**Iñaki Barrutiabengoa**
Uztailaren 9an, 59 urte. Zorionak, aitajauna! Gozatu zure egunaz! Muxu potolo-potolo bat etxekoen eta, bereziki, zure *guluguluntxu*ren partetik. Pa!



ANTZUOLA
**Ibai Alonso Santa Cruz**
Uztailaren 9an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Oso-oso ondo pasatu zure eguna eta segi horrela, mutil jatorra! Maite zaitugu. Musu handi bat. Etxekoak.



OÑATI
**Andoitz eta Eñaut Biain**
Andoitzek uztailaren 4an, 28 urte eta Eñautek uztailaren 9an, urtetxo bat. Zorionak tiori eta lobari! Zorionak eta muxu handi bat familiakoen partetik.

OÑATI
**Maialen Marton Camino**
Uztailaren 8an, urtebete. Zorionak, Maialentxo. Ondo-ondo ospatu zure eguna eta patxo pila-pila bat Anartzen eta Oxelen partetik.

## ASTEA GOIENAN


IMANOL SORIANO

### Antzuolako jaiak ikusgai astelehenean

Antzuola jaietan murgilduta dago eta jaietan jasotako irudi eta adierazpenak ikusi ahal izango dira *Debagoiena zuzenean* saioan. Mairuaren Alardeak, entsalada errusiar lehiaketak eta herri bazkariak emandakoak izango dira ikusgai, besteak beste.
**'Debagoiena zuzenean'**
Astelehena, 20:00


IMANOL SORIANO

### Gasteizko ironmana 'Harmailatik'-en

Domekan izan zen Gasteizko ironmana eta hainbat debagoiendarrek hartu zuten parte. Euren esperientziak kontatzen izango dira Beñat Arnaiz, Argider Isasti eta Asier Barrainkua parte-hartzaile debagoiendarrak, Xabi Urzelaik aurkeztutako saioan.
**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 17**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Amaia DJ
**13:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Amaia DJ
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Ikusi irratia
**17:45** Ikusmira
**18:00** Udakoak
**18:30** Erreportajea: Jon Salaberri
**19:00** Udakoak
**19:30** Amaia DJ
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** jazzber
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Amaia DJ
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

**ZAPATUA, 18**

**10:00** Amaia DJ
**10:30** Pauso bi
**11:00** Debagoiena zuzenean
**12:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**13:00** Zorion Agurrak
**13:05** Onein
**13:30** Udakoak
**14:00** Amaia DJ
**14:30** Udakoak
**15:00** Debagoiena zuzenean
**16:00** Astea iruditan
**16:05** Pauso bi
**16:30** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**17:30** Udakoak
**17:55** Zorion Agurrak
**18:00** Pauso bi
**18:30** Udakoak
**19:00** Debagoiena zuzenean
**20:00** Astea iruditan
**20:05** Kaskarotenea: Debagoinetik elkartasuna
**20:30** Amaia DJ
**21:00** Pauso bi
**21:30** Udakoak
**22:00** Debagoiena zuzenean
**23:00** Astea iruditan
**23:00** Amaia DJ
**23:30** jazzber
**00:15** Pauso bi

**DOMEKA, 19**

**10:00** Debagoiena zuzenean
**11:00** Astea iruditan
**11:05** Udakoak
**11:30** Amaia DJ
**12:00** Ur eta lur
**12:30** Udakoak
**13:00** Debagoiena zuzenean
**14:00** Astea iruditan
**14:05** Udakoak
**14:35** Zorion Agurrak
**14:45** jazzber
**15:45** Zorion Agurrak
**16:00** Udakoak
**16:30** Debagoiena zuzenean
**17:30** Astea iruditan
**17:35** Pauso bi
**18:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**19:00** Udakoak
**19:30** Zorion Agurrak
**19:35** Ikusmira
**19:45** Astea iruditan
**20:00** Debagoiena zuzenean
**21:00** jazzber
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Pauso bi
**23:00** Debagoiena zuzenean
**00:00** Astea iruditan

**ASTELEHENA, 20**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**13:00** Onein
**13:30** Zorion Agurrak
**13:30** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Udakoak
**15:35** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Zorion Agurrak
**17:05** Ikusi irratia
**17:50** Ikusmira
**18:00** Udakoak
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** jazzber
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Harmailatik
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**MARTITZENA, 21**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Harmailatik
**13:00** Zorion Agurrak
**13:05** jazzber
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Harmailatik
**15:25** Zorion Agurrak
**15:30** Onein
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**17:50** Zorion Agurrak
**18:00** Harmailatik
**18:30** Berriak
**19:00** Pauso bi
**19:30** Harmailatik
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**23:00** Debagoiena zuzenean
**23:30** Berriak
**00:00** Harmailatik
**00:30** Debagoiena zuzenean
**01:00** Berriak

**EGUAZTENA, 22**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Udakoak
**13:00** Ikusmira
**13:15** Ikusi irratia
**13:45** Zorion Agurrak
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** jazzber
**17:50** Ur eta lur
**18:30** Berriak
**18:55** Zorion Agurrak
**19:00** Udakoak
**19:30** Amaia DJ
**19:55** Zorion Agurrak
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Pauso bi
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Harmailatik
**00:00** Debagoiena zuzenean
**00:30** Berriak

**EGUENA, 23**

**12:00** Debagoiena zuzenean
**12:30** Pauso bi
**13:00** Udakoak
**13:30** Harmailatik
**14:00** Debagoiena zuzenean
**14:30** Berriak
**15:00** jazzber
**15:55** Zorion Agurrak
**16:00** Debagoiena zuzenean
**16:30** Berriak
**17:00** Udakoak
**17:25** Ur eta lur
**18:00** Udakoak
**18:25** Zorion Agurrak
**18:30** Berriak
**19:00** Amaia DJ
**19:30** Pauso bi
**20:00** Debagoiena zuzenean
**20:30** Berriak
**21:00** Debagoiena zuzenean
**21:30** Berriak
**22:00** Amaia DJ
**22:30** Debagoiena zuzenean
**23:00** Berriak
**23:30** Ikusi irratia
**00:15** Debagoiena zuzenean
**00:45** Berriak
**01:15** Jaiak: Antzuolako jaiak

## ARRASATE IRRATIA

### Asteko gainbegiratua zapatuan eta domekan 10:00etan entzungai

Irratiko matxurak konponduta, eguaztenean itzuli zen *Uda giroan* zuzenekoekin, eta astean izandako elkarrizketak berreskuratuko dituzte asteburuan. Besteak beste, Belako taldeko Josu Billalabeitiari egindako elkarrizketa eta zapatuko baserritarren azokari buruzkoa izango dira.

### Bi liburu zozketatuko dituzte datorren egubakoitzean

Udako oporrak hartu aurreko azken zozketa izango da datorren asteko egubakoitzekoa, eta *Denbora bere lekura* eta *Leize-zuloko misterioa* liburuak zozketatuko dituzte. Parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Zorte on!

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 17** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Zapatua, 18** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Domeka, 19** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Astelehena, 20** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Martitzena, 21** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea 1 | 943 79 15 15 |
| **Eguaztena, 22** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Eguena, 23** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 17** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Zapatua, 18** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Domeka, 19** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Astelehena, 20** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 21** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Eguaztena, 22** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 23** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 17** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Zapatua, 18** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Domeka, 19** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Astelehena, 20** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Martitzena, 21** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 22** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 23** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK





### Floren eta Feli

Floren Alonso eta Feli Rey arrasatearrek zilarrezko ezteiak ospatu dituzte uztailaren 14an. Familia guztiaren partetik, zorionak bihotz -bihotzez eta muxu handi bana! Ereindako haziek fruituak ematen dituztelako.



### Ekaitz eta Itxaso

Ekaitz Aramendi eta Itxaso Altuna uztailaren 11n ezkondu ziren Eskoriatzako udaletxean. Zorionak eta muxu handi bat, zuen familia guztiaren eta, bereziki, Unaxen eta Iradiren partetik.



### Asun eta Julian

Asun Txintxurreta eta Julian Uribeetxeberria oñatiarrek zilarrezko ezteiak bete zituzten uztailaren 14an. Zorionik beroenak, familia guztiaren partetik!

URTEURRENA



## Joxepa Gorosabel Romaratezabala



2014ko ekainaren 17an hil zen, 97 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.**

**Bergaran, 2015eko uztailaren 17an.**

URTEURRENA

## Bixente Mendibil Aiastui



Bergaran, 2014ko uztailaren 31n hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 19an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Etorriko zaretenoi, aldez aurretik, mila esker.**
**Bergaran, 2015eko uztailaren 17an.**

URTEURRENA



## Iñaki Aranzabal Zuburruti



Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 21ean, 65 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 18an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Maite zaitugu.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko uztailaren 17an.**

ESKER ONA



## Joaquin Balzategui Salaberria

'Txato'



Bergaran hil zen uztailaren 12an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Bergaran, 2015eko uztailaren 17an.**

ESKER ONA

## Sabino Anduaga Kortabarria



Oñatin hil zen 2015ko uztailaren 14an, 52 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

**Oñatin, 2015eko uztailaren 17an.**

HILETA

## Lorentxo Altube Bolinaga

—Goian bego—



Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

*Zuk erakutsitako arrastoari esker heldu gara garena izatera.*

*Eskerrik asko.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Arrasaten, 2015eko uztailaren 17an.**

## HILDAKOAK

**Maria Natividad Madina Herrarte.** Aretxabaletan, uztailaren 9an. 94 urte.

**Julio Aliende Arizmendi.** Bergaran, uztailaren 9an. 85 urte.

**Joaquin Balzategi Salaberria.** Bergaran, uztailaren 12an. 90 urte.

**Maria Antonia Errasti Zugasti.** Eskoriatzan, uztailaren 12an. 79 urte.

**Laurentina Mora Perez.** Arrasaten, uztailaren 13an. 85 urte.

**Pilar Mercedes Paulis Uriol.** Arrasaten, uztailaren 14an. 74 urte.

**Sabino Anduaga Kortabarria.** Oñatin, uztailaren 14an. 52 urte.

**Lorentxo Altube Bolinaga.** Arrasaten, uztailaren 16an. 82 urte.

OROIGARRIA

## Igor Lete Aranburu



Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

*Zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.*

*Maite zaitugu.*

**Zure familia.**
**Bergaran, 2015eko uztailaren 17an.**

**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



### Unai eta Idoia

Unai Moyuak eta Idoia Imazek uztailaren 18an Kiruri jatetxean ospatuko dute euren ezkontza. "Heldu da eguna, bikote! Primeran pasatuko dugu eguna familia eta lagun giroan! Bidaia zoragarria izan dezazuela! Zorionak, Tokilloko familiaren partetik!".



### Uxue eta Beñat

Zapatuan, uztailak 18, Aretxabaletako udaletxean ezkonduko dira. Familia guztiaren eta lagunen partetik, zorionak, bikote, eta egun eder-ederra pasatu!



### Iñaki eta Eliana

"Zorionak zure ezkontzagatik, izeba Eliana. Zapatuan, uztailak 18, Iñakirekin ezkonduko zara! Zure loba Damary eta Isaac Morenok onena opa dizuegu. Muxu bat. Gora ezkonberriak!".



### Miren eta Ruben

Miren eta Ruben Oñatiko Arantzazu santutegian ezkonduko dira uztailaren 18an. Zorionak, bikote, familiakoen eta kuadrillakoen partetik.



### Lore eta Iñigo

Lore Altuna arrasatearra eta Iñigo Altuna lizartzarra uztailaren 11n ezkondu ziren Izaskunen. Zorionak eta patxo handi bana, familia guztiaren eta, bereziki, Begoñaren eta Mirariren partetik.



### Eneritz eta Joseba

Eneritz eta Joseba zapatuan, uztailaren 18an, ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan. "Egun ahaztezina pasatuko dugu! Zorionak eta patxo handi bat, familiaren eta lagunen partetik. Oso ondo pasatu eztei-bidaian".

## ZINEMA

**BERGARA**

SEMINARIOAN

**Malefica**
Martitzena: 22:30.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**Jurassic World**
Martitzena: 19:00.
Eguena: 19:00, 21:30.

**EIBAR**

COLISEO

**Los Minions**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Terminator Genesis**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Rey gitano**
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Del reves**
Zapatua: 22:30.

ANTZOKIA

**Del reves**
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Rey gitano**
Zapatua: 22:30.

**GASTEIZ**

BOULEVARD

**Del reves**
Egubakoitza eta zapatua: 00:00, 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 17:15, 18:00, 19:30, 20:15, 21:45, 22:30.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:45.

**Del reves 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 21:00.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:30.

**Rey gitano**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:30, 22:00.

**Eliminado**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguenera: 18:45, 20:45, 22:45.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:45.

**Eternal**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik eguenera: 17:05, 19:35, 22:05.

**Los Minions**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 19:10, 20:30, 21:20, 22:40.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:10.

**Los Minions 3D**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

**Terminator Genesis**
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:40, 22:20.

**Terminator Genesis 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.

**Jurassic World**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Jurassic World 3D**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.

**Ahora o nunca**
Egubakoitzetik eguenera: 18:15, 20:15.

**Tomorrowland**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**Magic Mike XXL**
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**San Andres**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.

**Campanilla y la leuenda de la bestia**
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:30.

**Espias**
Egubakoitzetik eguenera: 22:30.

**Asesinos inocentes**
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.

FLORIDA

**Rey gitano**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Del reves**
Egubakoitza: 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:50, 20:40.

**Una historia real**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:50.

**Una segunda madre**
Egubakoitzetik domekara: 18:25, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50.

**Terminator Genesis**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Aprendiendo a conducir**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**Magic Mike XXL**
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:40.

**Los Minions**
Egubakoitzetik: 16:40, 18:30, 20:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:40, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:50.

**Amy**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**Mi familia italiana**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 20:50.

**Elsa & Fred**
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Jurassic World**
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

# Modernitatea eta folletoia

**EL MUNDO SIGUE** ★★★☆☆
**Zuzendaria:** Fernando Fernan Gomez.
**Herrialdea:** Espainia.
**Aktoreak:** Lina Canalejas, Gemma Cuervo, Fernando Fernan Gomez.

Modernitatearen eta folletoiaren artean dagoen lan ilun eta mingarria da 1963ko *El mundo sigue* filma. Filmean agertzen den gizartea nahiko kutsatuta dago. Pertsona asko itota bizi dira eta barruan gordetzen duten frustrazioak, inbidiak eta amorruak euren bizitzak hondatzen dituzte. Istorioaren barruan emakumeak jasaten duen tratu txarrak ikusten dira: fisikoak eta psikologikoak. Gizonek emakumeak astintzen dituzte, bitan pentsatu barik. Etxean egon behar zuten senarraren esanetara, eta, kalera irtenez gero, gizonen begiradak eta intsinuazioak jasan. Eta egora horretan, eskubide gutxirekin, emakumeek aurrera egiten ahalegindu beharko dute. Giro horretan sartuta, istorioan ahizpa diren bi emakume daude. Bata txorigaldu batekin ezkondu zen gaztetan arrakasta izan ostean, eta ondorioz, seme-alabei jaten emateko arazoak izango ditu. Besteak, bizitzari aurre egiteko, gizon aberatsen maitalea izatea erabakiko du. Hor agertuko da gizartean dagoen moral bikoitza: emagaldu arrunt bat izatea gaizki dago, baina, emagalduak diru asko lortzen badu, orduan beste alde batera begira daiteke. Diruaren pisua nabarmena da. Era berean, gizartean dagoen inbidia eta klaseen arteko mespretxuak ikusten dira: tabernako zerbitzari bati edozer gauza esan diezaiokete edo jendeak pertsonen zorigaitzari buruz barre egiten du. Gauza batzuk zerbait aldatu dira, baina beste batzuk oraindik ez.

Filma zuri-beltzean filmatuta dago eta Fernando Fernan Gomezek erabilitako modua oso berezia da: pertsonaien pentsamenduak kaleratzeko, pertsonaiek eskailerak igotzen ipintzen ditu, hainbat garaitariko oroimenak nahasteko. Hori dena folletoiarekin nahasten du –pertsonaien portaera histerikoa, hitz egiteko modua...– gaur egun ere, nahiko berezia den filma burutzeko.

ANTONIO ZABALA

# NON-ZER

UZTAILA 17
UZTAILA 23

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Gabacho Maroconnection**
Berumuga musika zikloan.
Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.

**ANTZUOLA Petti, Klak!son, The Convicts eta Sukarra37 taldeak**
Antzuolako jaietako kontzertua.
Gaur, egubakoitza, txosnagunean.

**ARRASATE Amaia Oraa Niño**
Gitarra klasikoarekin egingo du emanaldia gasteiztarrak. Bertsioak izango ditu hizpide.
Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 23:00etan.

**ARRASATE Pecozza United taldea**
Punk eta rock doinuak joko ditu taldeak.
Bihar, zapatua, Jai Zale tabernan, 19:00etan.

**BERGARA Aritzeta Abesbatza**
Azken 25 urteetan egin bezala, emanaldia egingo du abesbatzak Santa Marina eguna ospatzeko.
Bihar, zapatua, Santa Marinan, 19:45ean.

**ESKORIATZA Glaukoma**
Hip-hop, raggamuffin eta reggae doinuak lantzen dituen taldearen kontzertua Errekan Gora jaialdian, doan.
Bihar, zapatua, Gernika plazan, 22:30ean.

**ANTZUOLA Joselu Anaiak**
Antzuolako jaietako erromeria.
Bihar, zapatua, Herriko plazan, 22:30.

**BERGARA Udal Musika Banda**
Kalejira eta ondoren kontzertua egingo dute.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:00etan.

**ANTZUOLA Ezten Giro taldea**
Antzuolako jaietako erromeria.
Etzi, domeka, Herriko plazan, 20:45ean eta 22:00etan.

## JAIAK

**ARETXABALETA Portasol auzoan**
Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste: egubakoitzean, dantzaldia eta rock kontzertua; zapatuan, atletismo proba, txakurren erakustaldia, haurrendako jolasak, mus txapelketa eta rock kontzertua; eta domekan, azoka, paella lehiaketa eta Gorritiren zezentxoak.
Aste bukaeran, Portasol auzoan.

**OÑATI Santxolopeztegiko jaiak**
Madalena jaiak ospatuko dituzte. Gaur, egubakoitza, etxafuego jaurtiketa eta auzo-afaria; bihar, zapatua, meza eta luntxa, umeendako jolasak eta dantzaldia; eta etzi, domeka, meza, herri kirolen erakustaldia eta mus txapelketa.
Aste bukaeran, Santxolopeztegi auzoan.

**BERGARA Santa Marina jaiak**
Askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, dantzaldia, karta-joko txapelketa, meza, auzo-afaria eta Lord Witchen, Los Herzogen eta Idoia Bediagaren kontzertua –azken hori Iralan.
Aste bukaeran, Oxirondon.

## IRTEERA

**OÑATI Hondarribira irteera Trautirekin**
Eragozpen eta mugikortasun murriztua duten pertsonei eta haien laguntzaileei zuzenduta.
Bihar, zapatua, postetxean, 10:00etan.

**OÑATI Usakora irteera**
Gaztelekuko kuboko erabiltzaileak arratsalde-pasa joango dira


# ANTZUOLA JAIETAN

**GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN | ANTZUOLAKO JAIAK 2015**
UZTAILAREN 20AN, 20:00 - 21:00 - 22:30

**GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA | ANTZUOLAKO JAIAK 2015**
UZTAILAREN 24AN, SAIO BEREZIA: 22:00



25 URTE
HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**ARRASATE Belako eta La-Tox taldeak**
Udazabal zikloko kontzertua. Belakok kantu borobilak egiten ditu melodia hipnotikoekin eta gitarra kolpe agresiboekin. La-Tox taldeak, aldiz, sintetizadoreen laguntza izango du oholtzan. Musika elektronikoa eta esperimentala egiten dute Txus Arriaranek eta Laida Ballesterosek.
Gaur, egubakoitza, Monterronen, 22:30ean.


WWW.KMON.INFO


MUSIKHERRIA.ORG

**ANTZUOLA Itziarren Semeak, Joxe Replay eta Fan & Go taldeak**
Antzuolako jaietan egingo dute kontzertua hiru taldeek, txosna batzordeak gonbidatuta. Ska, punk eta reggae doinuak egiten ditu Itziarren Semeak; ska eta cumbia Joxe Replay taldeak; eta dantzaldia Fan & Go taldeak.
Bihar, zapatua, Zurrategin, 23:00etan.

Usakora, hango begiraleen laguntzarekin.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 17:00etan.

**ELGETA Mendi irteera**
Bost orduko mendi txangoa egingo dute Kantsatzeke taldekoekin; hain justu ere, Urkiola-Leunga-na-Mañaria.
Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 08:00etan.

**OÑATI Auzolana Araozko zabortegi zaharrean**
Garbiketa egingo dute Oñatiko Zero Zabor taldearekin eta ostean bazkaria Saloian. Aurrez izena eman behar da, Udaleko Ingurumen Zerbitzuan (943-78 04 11) edo *nekazaritza@onati.eus* helbidean.
Etzi, domeka, postetxean, 09:00etan.

## ERAKUSKETAK

**ARETXABALETA Pintura lanak**
Ainhoa Caberoren ikasleek egindako lanak ikusgai.
Uztailaren 29ra arte, Arkupen.

**ELGETA Argazkiak**
*Los riffs congelados* delako argazki bilduma ipini dute ikusgai.
Uztailaren 25era arte, Espaloian.

**BERGARA Margolanak**
Xabier Guridiren pinturak ikusteko azken egunak.
Aroztegi aretoan, uztailaren 19ra arte.

**OÑATI 'Oñati oroitzapenean'**
Oñatiko antzinako hogei argazkiren erakusketa.
Irailaren 14ra arte, Ulman.

**ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'**
Bixente Barandiaranen lanak.
Harresi aretoan ikusgai.

## ANTZERKIA

**ARRASATE 'Rico, rico, rico'**
Salitre Teatro taldearen antzezlana. "Batere zentzurik gabeko ikuskizuna. Edozein amak seme-alabei ikustea debekatuko liekeena", diote protagonistek.
Etzi, domeka, Seber Altuben, 20:00etan.

**ARETXABALETA 'Txarlestrup' antzezlana**
Zirika Zirkus taldeak musika eta akrobaziak bateratzen dituen ikuskizuna egingo du kalean, adin guztietako ikusleendako.
Uztailaren 22an, Santa Kurtz kaleko plazan, 19:00etan.

**BERGARA 'Txatarra' antzezlana**
Malas Compañias taldeak antzerkia, akrobazia, objektuen manipulazioa eta umorea bateratzen dituen ikuskizuna egingo du, adin guztietako ikusleendako.
Uztailaren 22an, San Martin plazan, 19:00etan.

## TURISMOA

**OÑATI Bisita gidatuak**
Sancti Spiritus Unibertsitatea eta Mikel Goiaingeruaren parrokia ezagutzeko bisitak: 12:30ean eta 17:00etan, bihar eta etzi.

## KIROLA

**ANTZUOLA Mendizabal eta Barriola, Altunaren eta Tolosaren aurka**
Profesional mailako pilota partiduak Antzuolako jaietan.
Gaur, egubakoitza, Antzuolan, 22:30ean.

**ARETXABALETA Zazpiko futbol txapelketa**
Zazpigarrenez egingo du Aretxabaleta kirol elkarteak Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketa.
Bihar, zapatua, Ibarran, 10:00etan.

**OÑATI Arantzazuko Igoera**
Gazte mailakoendako 46. lasterketa egingo dute.
Bihar, zapatua, Kalegoienako biribilgunetik, 16:30ean.

**OÑATI Kantoikrit criteriuma**
Piñoi finkodun bizikleten IV. kriteriuma. Hamasei bira egin beharko dizkiote zirkuituari. Guztira, 24 kilometro.
Bihar, zapatua, Oñatiko kaleetan, 20:00etan.

## BESTELAKOAK

**ARRASATE Odol ematea**
Goizez egongo da autobusa Eroski supermerkatuko aparkalekuan.
Uztailaren 20an, Eroski supermerkatuan, 09:30ean.

## LEHIAKETAK

**ARRASATE 'Maite ditugu maite, Debagoieneko bazterrak'**
Debagoieneko edozein arlo, gai edo errealitate islatuko duten argazkiak izango dira protagonista Erein Da Janek deitutako lehiaketan. Besteak beste, herri bizitza, lehenengo sektorea, ingurumena, ondare kulturala eta paisaia. Argazkiak –pertsonako gehienez bi– *ereindajan@bagara.net* helbidera bidali beharko dira irailaren 30a baino lehen. Bi sari banatuko dituzte.
Irailaren 30era arte.

**BERGARA Udako euskarazko postalak**
Jardunek deitutako lehiaketan postalaren edertasuna, edukia, originaltasuna eta idazkera baloratuko ditu epaimahaiak. Lanak entregatzeko azken eguna irailaren 18a da, Jardunen bulegoan.
Irailaren 18ra arte, Jardunen.

**OÑATI Jai egitaraurako irudia**
San Migel jaietako egitaraua aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Teknika librea erabiliz, Oñatiko jaiak izango dira hizpide nagusi. Informazio gehiago eta arauak *Oinati.eus* atarian edo *kultura.idazkaritza@oinati.eus*-en.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

## DEIA

**OÑATI Haurren danborradan parte hartzeko**
Parte hartu gura duten hirugarren eta laugarren mailetako neska-mutikoendako izen-emate epea zabalik: *oinatikotanborradatxikia@gmail.com* helbidean edo kultura etxean goizez. Entseguak irailaren 1ean hasiko dituzte, Eltzian, Eteon.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

## IKASTAROA

**ELGETA Dantza-jauziak**
Dantza-jauzietan sakontzeko ikastaroa egingo dute uztailaren 20tik 24ra. Hamar orduko ikastaro aurreratua izango da. Izena emateko: *herrixadantzan@gmail.com* helbidea edo 943-78 90 70 telefonoa.
Uztailaren 20tik 24ra, Elgetan.


# Goiena Klubeko uztaileko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**



Arrasateko hipermerkatua
EROSKI

**Musika katea X-EM12**
Parte hartzeko sariaren izena: Musika katea




**Kamisetak**
**Puntueus Fundazioari esker bi domeinuak.eus kamiseta**
Parte hartzeko sariaren izena: Kamiseta



**Liburua**
**Gerardo Markuletaren azken liburua**
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua




**Liburua**
**Leize-Zuloko misterioa**
Parte hartzeko sariaren izena: Leize-Zulo



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

**Otarra**
**Bidezko merkataritzako produktuak**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



ARRIKRUTZ

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobetarako, 6 sarrera**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

**PARTE HARTZEKO:**
**Telefonoz:** 943 25 05 05 **E-postaz:** kluba@goiena.eus
**WhatsApp:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
**SMS:** KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!



Erreka jatetxeko txokolatezko tarta.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba



BUKATZEKO

# Herzog familia etxera dator abestera

- Mikel Herzog abeslari ohiaren semeek kontzertua eskainiko dute domekan, 21:30ean, Bergaran
- Musika ikasketak egiten dabiltzan gazteek diskoa aterako dute udazkenean, aitak lagunduta

**MIRARI ALTUBE** | BERGARA

Aspaldi joan zen Mikel Herzog (Bergara, 1960) Bergaratik, baina ondo baino hobeto daki nongoa den, eta domekan pozik itzuliko da etxera. Orquesta Alcatraz, La Decada Prodigiosa eta beste hainbat taldetako kide izan zen, eta 1998ko Eurovision lehiaketan hartu zuen parte. Geroago, *Operación triunfo* telebista saiorako jardun zuen lanean akademiako zuzendari legez. Oraingoan, bi semeekin dator herrira, eta aitaren pausoak jarraitu gura dituzten bi gazteek kontzertua eskainiko dute Santa Marinako jaien barruan. Irala kalean izango da emanaldia, etzi, 21:30ean.



Domekan Bergaran izango diren Mikel eta Ivan Herzog anaiak. | MIKEL HERZOG

### Azkenekoz iaz

Cambrilsen (Tarragona) bizi dira herzogtarrak, baina Bergarara itzultzea gustuko dute. "Azkenekoz orain dela urtebete inguru egon nintzen. Gabonetan, gainera, familia hor elkartu izan gara, nekazari-etxe batean. Aita hil zen eta ama paraje beroagoetara joan da bizi izatera, baina familiako kideok gustuko dugu bertan elkartzea", eta gaineratu du: "Lagun asko dauzkat hor, eta, zelan ez, oroitzapen mordoa; bihotzak salto egiten dit pasatzen naizen txoko bakoitzean". Azken urteotan herria asko aldatu dela dio: "Irala kalean mila bider ibilia naiz, autoan askotan. Orain, oinezkoendako jarri dutela esan didate; herriarendako birika ederra izango da hori".

### Kontzertu intimoa

Mikel semeak 20 urte ditu eta Ivanek, 17. "Madrilen jaio zen nagusiena, baina Bergarako Santa Marinan dago bataiatua", dio.

Telecinco kateak ekoiztutako *La voz* saioari esker egin dira ezagun Herzog anaiak.



Mikel Herzog. | M.H.

"Loteria tokatu zitzaien saiorako aukeratu zituztenean. Oso pozik daude han egindako lanarekin, oso pozik egindako lagun guztiekin... Eta orain aurrera begira". Argi dago aitaren pausoak jarraitu gura dituztela, eta hark gomendatu die ondo gertatzeko. "Mikel dabil pianoko goi mailako ikasketak egiten Bartzelonako lizeoan eta Ivan musika modernoa ikasten Tarragonan".

Los Herzog izenarekin hasi dira kontzertuak ematen eta kontzertu intimoa eskainiko dute etzi, formatu txikikoa: "Pianoak egingo die lagun ahotsei, eta gitarra akustikoa ere erabiliko dute abesti batzuetan. Kantuak izango dira *La voz* saioan abestu zituztenak batzuk eta eurek konposatutakoak beste batzuk. Musika klasikoari ere egingo dizkiote keinutxo batzuk", dio. Eta gaineratu du: "Abesti batzuetan neuk ere egingo diet lagun, hori bai, trabarik egin gabe, orain euren txanda da-eta".

Musika kontuak erdi alboratuta ditu Herzogek eta familiako enpresaren ardura dauka orain, JVS Logistic. "Musika nire bizitza izan da, baina orain atzealdean nabil borrokan, semeekin". Diskoa grabatuko dute horiek aurten. Hamar kantu izango ditu, horietatik bost eurek konposatuak. Prestaketa lanetan hasita daude eta azarorako gertu izatea gurako lukete.

## AZKEN BERBA

**ANDER ETXEBERRIA**



### Ikurrina

Txupinazoa botatzerakoan ikurrina Iruñeko udaletxeko balkoian egon da. Arrasateko sanjuanetan denbora gehiago irauten du hiru kolorekoak. Baina zergatik jartzen da? Ez dago erantzun beharrik, ezta? Hortaz, zergatik ez dago Mondragoeko erdialdean masta bat ikurrina batez modu iraunkorrean?

Badatoz oporrak, eta, bidaiatzeko aukera badugu, herrialde askotan han-hemenka ikusiko ditugu ikur nazionalak. Ez da arreta handirik jarri behar konturatzeko normala dela paisaia hori: banderak leku publiko eta pribatuetan, eraikin ofizialetan eta bestelakoetan. Arrasateko kaleetan, egun bereziak ez badira, taberna batzuetan eta alderdi politiko abertzale gehienenen egoitzetan ikus daiteke soilik gurutze bikoa.

Normala da munduan zehar eta horrela izan behar du gurean ere, Aretxabaleta edo Oñatin bezala: plazan bertan esekita dago ikurrina haga altu batean.

Udalbatza berria daukagu eta badakit gai asko dagoela talde berri bati eskatzeko; hala ere, urteurrena ezin alboratu: aste honetan bete dira 121 urte hiru kolorekoa lehen aldiz plazaratu zela. Mondragoeko Herriko Plaza, baina, zain dago oraindik.

